



txstena

2011



Osakidetza



kronikoen
programa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETX KONTSUMO
SALA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

Aurkibidea

I. Aurkezpena

“GUTXIAGOREKIN GEHIAGO... ETA HOBETO”	9
---------------------------------------	---


II. Estrategia

KRONIKOTASUNAREN ESTRATEGIA	13
- Proiektu estrategikoen aurrerapena	14
- Proiektu estrategikoen bilakaera	15
- Mapa sanitarioa	17
ZERBITZU ERAKUNDEAK OSASUN BARRUTIAREN ARABERA	18
- Arabako osasun-barrutiko lurralde-eremua	18
- Bizkaiko osasun-barrutiko lurralde-eremua	19
- Gipuzkoako osasun-barrutiko lurralde-eremua	21
AINZATESPENAK	24
ARGITALPEN KORPORATIBOAK	26
INTERES BEREZIKO ARAUDIA	28

III. Pertsonak

PLANTILLA	31
- Plantillaren banaketa	31
- Plantillaren ezaugarriak	34
- Plantillaren planifikazioa eta antolaketa	36
- Plantilla funtzionalak garatu eta onartzea	36
HAUTAKETA ETA HORNIKETA	37
- Enplegu publikoaren eskaintza	37
- Mugikortasuna	38
- Lekualdatze lehiaketa	38
- Zerbitzu eginkizunak	39
- Kontratazio zerrendak	40
- Aldi baterako kontratazioak	41
- Postuen deialdiak	42
EMAITZAK PERTSONETAN	43
- Gogobetetze-mailaren ebaluazioa	43
GARAPEN PROFESIONALA	44
LAN OSASUNA	50
- Lan-arriskuak prebenitzeko kudeaketa	50
- Osasunaren zaintza	51
- Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak	52
- Arrisku biologikoen aurkako txertoen programa	53





- Lekualdaketak osasun-arrazoiengatik	53
- Lan-absentismoa	54
HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA	55
ERAKUNDEAREN PRESTAKUNTZA-PLANA	62

IV. Baliabideak

ARKITEKTURA ETA INGENIARITZA	67
- Inbertsioak	67
INFORMAZIO-SISTEMAK ETA -TEKNOLOGIAK	70
- Garapen-arloa	70
- Kudeaketako informazio-sistemen arloa	71
- Ekoizpen-arloa	72

V. Prozesuak (Jarduera)

LEHEN MAILAKO ARRETARAKO JARDUERA	77
- Oinarrizko adierazleak	77
- Gripearean aurkako txertaketa-kanpaina	78
EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKOEN ETA AKUTUEN OSPITALEEN JARDUERA	79
- Oinarrizko adierazleak	79
- Ospitalizazioaren ordezkio alternatibak	80
- Ingresuak eta kontsultak zerbitzuaren arabera: akutuen eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	81
- Altak akutuen ospitaleetan: 25 DTE ohikoenak	82
- Altak egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan: 25 DTE ohikoenak	83
ASISTENTZIA PSIKIATRIKOKO ETA OSASUN MENTALEKO JARDUERA	84
- Bizkaiako Osasun Mentaleko Sarea	84
- Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea	86
- Arabako Osasun Mentaleko Sarea	87
EMERGENTZIEN JARDUERA	89
BERTARATU BEHARRIK GABEKO KONTSUTEN JARDUERA	91
ARRETA ESPEZIALIZATUKO BESTE PROGRAMA BATZUEN JARDUERA	93
- HIESaren prebentzio- eta kontrol-plana	93
- Bularreko minbiziaren goiz detektatzeko programa	97
- Haurren hortzak zaintzeko programa. PADI	107
- Trasplanteen programa	109
- Transfusio eta giza-ehunen euskal zentroa	111
- Haurren gorreria goiz detektatzeko programa	113
- Kolon-ondesteetako minbizia goiz detektatzeko programa	114
- Downen Sindromearen eta beste kromosomopatiaren baheketa	118



IKERKETA	120
- Sarrera	120
- 2011n jardunean izan diren ikerketa-proiektuak	120
- Euskal osasun publikoan ikerketan lan egiten duten langileak	122
- Gai-arloak eta ikerketa-ildoak	123
- Osasun sistemak ikerketan egindako inbertsioa, guztira	125
- Patenteak eta teknologiaren transferentzia	127
- Ikerketarako lagin biologikoak kudeatzea	129
- Ikerketa zientifikoaren egiturazko garapena Osakidetzan	131

VI. Emaitzak

ANTZEMANDAKO KALITATEA	139
- Osakidetza pazienteen gogobetetze-inkestak	139
- Kexak, erreklamazioak eta eskerak	141
PAZIENTEAREN SEGURTASUN KLINIKOA	142
TARTEKO ETA BUKAERAKO EMAITZAK: LEHEN MAILAKO ARRETA	144
- Eskainitako denbora	144
- Baliabideen erabilera	144
TARTEKO ETA AMAIERAKO EMAITZAK: AKUTUEN ETA EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEAK	144
- Baliabideen erabilpena	144
- Ospitalizazioaren ordezkio alternatibak	145
- Espezialitate bakoitzeko batez besteko egonaldia eta okupazio-indizea	146
- Akutuen ospitaleen 26 DTE ohikoenen batez besteko egonaldia	147
- Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleen 25 DTE ohikoenen batez besteko egonaldia	148
- Akutuen ospitaleetako alta anbulatorizatuak DTE-en arabera	149
- Akutuen ospitaleetako espezialitatearen arabera berringresua	150
- Akutuen ospitaleetako berringresuak DTE-en arabera	151
- Irisgarritasuna. Itxaron-zerrenda kirurgikoa	152
- Prozedura kirurgikoen itxaron-zerrenda kirurgikoa	153
- Kanpo-kontsulten itxaron-zerrenda	153
- Proba osagarrien itxaron-zerrenda	153
KOSTUAK	155
- Maiztasun gehien duten 25 DTE-en kostuak: akutuen ospitaleak	156
- Maiztasun gehien duten 25 DTE-en kostuak, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan	157

VII. Urteko kontuak

EGOERA BALANTZEA	161
------------------	-----





Aurkezpena



“Gutxiagorekin gehiago... eta hobeto”

Eusko Jaurlaritzaren gizarte-politikak babestuta egon arren, egoera ekonomikoak derrigortuta gerrikoa es-tutu beharra zegoen, aurre egin behar zitzaion osasun-arloan aurrekontua batere ez igotzeko joerari, eta ezinbestekoa zen Osasun eta Kontsumo Sailari eta Osakidetzari zegozkion funts publikoak murriztea ere.

Hori horrela izanik, 2011. urtea bereziki zaila zetorrela zirudien: gehiago ahalegindu beharra zegoen alor guztietan okerrenera ere aurreko urteko emaitza berak lortzeko, kontuan izanik aurreko urte horretan, eta denbora askoan lehen aldiz, ekitaldiaren amaieran gastua ia guztiz egokitu zitzaiola erabilgarri zegoen aurrekontuari, jarduera —eta eskaria— igo baitziren eta batez besteko atzerapenei eutsi baitzitzairen. Baina gai izango ote ginen 2011n joera horri eusteko?

Zalantzarik gabe, eta eskuan datu zehatzak ditugula, erantzuna baiezkoa da:

- Etengabe gora egin duen eskariaren aurrean produktibitatea nabarmen handituz erantzun dugu, aldi berean osasun-gastuari eutsiz. Eskari handiagoa, jarduera handiagoa, atzerapen bertsuak.
- Gaur egun, euskal osasun-sistema lehen baino ere publikoagoa da: zerbitzu asko eskaintzen ditu, eta gero eta jarduera gehiago egiten ditu bere baliabideekin, hau da, osasun pribatua gutxiago erabiliz. Hitzar-menetan askoz diru gutxiago gastatu da.
- Euskadi nabarmendu egiten da Espainian, hornitzaileei ordaintzeko orduan duen kaudimenagatik.
- 2011ko EPEa, zeinak tamainari dagokionez ez baitu parekorik Estatu osoan, enplegu-egonkortasunaren aldeko eta behin-behinekotasunaren kontrako apustu garbia da.
- Euskadik aurrera jarraitzen du lehentasunezko zerbitzuen (onkologia, hemodinamika, zainketa aringa-riak, prebentzioa...) mapa ezartzeko bidean.
- Lehenengo aldiz, Osakidetzak ospitaleko farmazia-gastu txikiagoarekin itxi du ekitaldia, oro har farma-zia-gastua jaisten, generikoak sustatzen eta botikak hobeto erabiltzen ari diren testuinguru baten barruan.
- Pazienteek Euskal Osasun Zerbitzuarekin harremana izateko modu berriak finkatu dira: etxeko os-pitaleratzea, bertaratu beharrik gabeko kontsultak, osasun-aholkularitza, paziente kronikoen telefono bidezko jarraipena...
- Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea eta Bidasoa Osasun Erakunde Integratua adibide garbiak dira asis-tentzia-mailen arteko koordinazioak dituen alderdi onak ikusteko, Lehen Mailako Arretako eta Arreta Es-pezializatuko profesionalen arteko etengabeko lankidetzak pazienteari zein abantaila eskaintzen dizkion jabetzeko.

2009an abiatu zen osasun-ereduaren erreforma, Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estra-tegiak zuzendu zuena, hasi da fruituak ematen. Kudeaketa, estrategia eta profesionaltasuna igarri egiten dira eraginkortasunean. Horri esker, daukagun testuinguru zailean eta etengabeko krisi ekonomikoa dugun hone-tan, aurrera egin ahal izan dugu euskal osasun-sistema publikoaren iraunkortasunerako bidean.

Beharrak agintzen du, eta krisi ekonomikoak norabidea aldatzera behartu gaitu, hots, lan egiteko modua aldatzera. Ez dirudi Osasunera bideratutako aurrekontua aurreko urteetan eta legealdietan igotzen zen be-zala igoko denik berriro. Funtsak mugatuak dira, eta horrek kudeatzeko, kronikotasunari aurre egiteko eta osasun-sistema egituratzeko beste modu batzuk eskatzen ditu.

Jakina, hori guztia ezingo litzateke pentsatu ere egin Osakidetzako profesionalen parte-hartzerik eta konpro-misorik gabe. Haien laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen 2011. urtea zenbaki eta emaitza horiekin ixtea, eta haiek gabe ezinezkoa izango da, halaber, aurrerantzean joera horri eustea.

Julián Pérez Gil





Estrategia



Kronikotasunaren estrategia

Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategiaren (KE) helburua da gaixotasun kronikoak dituzten pertsona-taldeen osasuna eta ongizatea hobetzea eta gaixotasun horien intzidentzia eta eragina murriztea. Kronikoen Estrategiaren azken helburua arreta-zerbitzua beste modu batera antolatzea da, sistemako alor guztietan eragiteko (pazienteen eta zaintzaileen osasunean, gogobetetze-mailan eta bizitzakalitatean, bai eta jasangarritasunean ere). Hala ere, egitura-eraldaketa hori une honetan bizi den egoera ekonomikoaz harago doa, eta denbora luzea behar da (2 eta 5 urte bitartean, gutxienez) haren eragina sisteman nabaritzen hasteko.

Azken hamarkadetan nabarmen handitu da euskal populazioaren bizi-itxaropena, eta aldaketa nabariak izan dira jendearen bizimoduan. Horrenbestez, gorantz doa gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen prebalentzia, eta gure osasun-sistemako paziente gehien-gehienek patologia bat edo gehiago nozitzen dituzte. Kronikotasuna, beraz, kalitatearen aldetik erronka handia da arretaren esparruan.

Hori horrela, Euskadiko Osasun Sistema eraldatzeko diseinatutako estrategia honela dago egituratuta:

1. Epe ertaineko ikuspegi batetik abiatzen gara, etorkizunean izan nahi dugun egoera zehaztuz eta deskribatuz.
2. Kronikoentzako osasun-arretako politikak ikuspegi hori ondo betetzeko gidak dira.
3. Badira aldaketa sortzen eta ezartzen laguntzen duten zenbait proiektu estrategiko, hartara politikak eta ikuspegia bete daitezen alderdi guztietan.

• Ikuspegia

Euskadiko Kronikoen Estrategiak Euskadiko Osasun Sistema eraldatu nahi du, kronikotasunak eragiten dien pertsona-talde guztietan (paziente kronikoak eta haien zaintzaileak, osasun-profesionalak eta, oro har, herritarrek) fenomeno horrek sortzen dituen beharrei erantzuteko.

• Politikak

Euskadiko Osasun Sistemaren eraldaketa bultzatzeko zehaztu diren politikak hauek dira:

1. Populazio-osasunean oinarritutako ikuspegi bat hartzea, populazio-osasunaren kudeaketa geruzatua eta proaktiboa kudeatzea eta osasun-arloko desberdintasunak murriztea.
2. Osasunaren sustapena eta gaixotasunen prebentzioa lehenestea.
3. Herritarren zeregin aktiboa eta erantzukizuna indartzea eta pazienteen autonomia bultzatzea.
4. Asistentziaren jarraitutasuna bermatzea, eta, horretarako, dauden zerbitzuen, arreta-mailen eta sektoreen arteko diziplina anitzeko asistentzia koordinatua eta integratua bultzatzea.
5. Osasun-arloko esku-hartzeak pazienteen premia eta lehenetsunetara eta sistemaren eraginkortasunera egokitzea.

• Proiektu estrategikoak

Politikak 14 proiektu estrategikoren bidez ari dira ezartzen. Proiektu horiek pazienteei, profesionali eta oro har herritarrei zuzendutako kronikoen eredu berriari laguntzen diote.



PROIEKTU ESTRATEGIKOEN AURRERAPENA

Kronikotasunaren Estrategia (KE) zehaztu eta abiarazi zenetik bi urte luze igaro diren honetan, estrategia hori osatzen duten proiektuen garapen-mailak ezinbesteko egiten du etengabe estrategiaren aurrerapena ebaluatzea eta beharrezko alderdi guztiak egokitzea, aurrerapena modu orekatuan eta egokian egiten dela bermatzeko.

Bilakaera horretan, nabarmentzekoa da 2010eko uztaillean argitaratu zen dokumentua: “Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia” (ikus webean: <http://cronicidad.blog.euskadi.net/proyecto-estrategico/>). Dokumentu horretan biltzen ziren planteamendu estrategikoa eta KEren bost politikak osatzen dituzten 14 proiektuen hasierako garapena.

2011ko maiatzean, Donostian izan zen Paziente Kronikoaren Osasun Arretari buruzko III. Biltzar Nazionalarekin bat etorritik, beste dokumentu bat argitaratu zen, eta KEren proiektuetan lorturiko aurrerapenen berri ematen zen dokumentu hartan (webean ikus daiteke: <http://cronicidad.blog.euskadi.net/pagina-descargas/>).

KEren 14 proiektuen ekarpena da gure osasun-sistema hainbat zerbitzu, baliagarritasun, tresna, antolamendu-aldaketa eta eginkizun berriz hornitzea, eta, azken batean, arreta beste modu batera antolatzea. Hori funtsezko osagaia da emaitza kliniko hobekuntza lortzeko eta paziente kronikoen gogobetetze-maila hobetzeko, bai eta osasun-sistemaren eraginkortasunean eta jasangarritasunean hobekuntza handiak erdiesteko ere.

Proiektu horiek guztiak pixkanaka ezartzeari esker, hobeto kudeatzen dira paziente kronikoak, abantaila eta baliagarritasun berri ugari ditugulako eskura haien arreta eta jarraipena errazteko.

Ondoren, eta labur-labur, proiektu horiek guztiek 2011. urtean egin dituzten ekarpenak zehaztuko ditugu. Proiektu estrategikoak hiru talde hauetan banatu ditugu:

I. Tresna zentralizatuak diren proiektuak, paziente kronikoen arreta-prozesua hobetzeko erraztasunak eskaintzen dituztenak.



2. “Finalista” deritzen proiektuak, zerbitzu-erakundeetan garatzen baitira bakoitzaren ezaugarri berezien, ezartzeko erritmoaren eta abarren arabera.

3. Profesionalek bideratutako berrikuntzarekin loturiko proiektuak.

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN BILAKAERA

Tresna zentralizatuak diren proiektuak

- **Osabide Globala:** Datuen eskuragarritasuna hobetzen du, erabakiak hartzen laguntzen du, diagnosi-baliabideen eta baliabide terapeutikoen erabilera hobetzen du, profesionalen eta mailen arteko komunikazioa errazten du...
- **Osarean:** Bertaratu beharrik gabeko gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen dira administrazio-, asistentzia- eta prebentzio-gaietan, pazienteak aktibatzearen inguruan, osasuna sustatzearen arloan...
- **Errezeta elektronikoa:** Hobetu egiten da farmazia-kudeaketaren kalitatea, haren segurtasuna, eta gure profesional eta pazienteek denbora eta administrazio-izapide gutxiago behar izaten dituzte.
- **Geruzatzea:** Arreta erabat aldatzen du, populazioaren ikuspegia sartuz; ikuspegi horren bidez, arreta-beharren arabera paziente-taldeak ezartzen dira, ebidentzia zientifikoan oinarriturik modu eraginkorrean esku hartzeko.
- **Finantziarioa/Kontratazioa:** Tresna oso eraginkorra da zerbitzu-erakundeek populazioaren ikuspegitik (pazienteak geruzatuz) eta tokiko esparruan jarduerak beren artean koordinatuz/integratuz (“mikrosistemak” edo tokiko osasun-sistema integratuak) lan egin dezaten lortzeko.

“Finalista” deritzen proiektuak:

- **Erizaintzako eskumen aurreratuak:** Proiektu honek erizaintzako lana aberastea dakar, beste rol eta eginkizun batzuk erantsiz; hala, paziente konplexuen asistentzia-prozesua modu eraginkor, jarraitu eta koordinatuagoan eskaini ahal izango da.
- **Arreta kliniko integratua:** OEI (Osasun Erakunde Integratuak) deritzen egitura berriak sortuz egin diren antolaketa-aldaketei esker, eta, batez ere, asistentzia-mailen nahiz profesionalen arteko koordinazio-esperientziak eta -proiektuak bultzatu izanari esker, asko ari da hobetzen prozesu klinikoaren kalitatea eta eraginkortasuna. Berrikuntza horiek KEren ardatz nagusietako bat bihurtu dira. Testuinguru horretan, ezin da ahaztu klinikari alderdi “soziala” ere lotu behar zaiola, paziente-mota horien arreta-prozesuan ezinbesteko osagaia baita.
- **Prebentzioa eta sustapena:** Ezinbestean landu beharreko alderdia da KEren eraginkortasuna handitzeko, erakunde-arloko eta tokiko jardueren bitartez, populazioaren eta komunitatearen ikuspegia sartuz eta profesional kliniko-asistentzialen eta osasun publikokoaren arteko lankidetzak sustatuz. Helburua da gaixotasun kronikoen arrisku-faktore nagusietan modu eraginkorrean eragitea, horretarako estrategiak sustatuz (adibidez, sektoreen arteko lankidetzak).
- **Paziente aktiboa:** Prozesu kronikoa eraginkor egiteko eta hobetzeko gaitasun handia hartzen du barnean, pazienteak gai delako bere gaixotasunaren garapena ulertzeko eta bere zaintzaren ardura hartzeko.
- **Arreta soziosanitarioa:** Lehen Mailako Arretan (LMA) batez ere, koordinazio soziosanitarioa garatzea dakar, arreta integratuaren berme gisa, eta gaixoaren bizilekua bera bihurtzen du zainketa-gune nagusi. Hau da, aldi berean osasun-arreta eta arreta soziala ematea, arreta koordinatua eta egonkorra, arretaren jarraipen-printzipioarekin bat datorrena.

- **Subakutuentzako ospitaleak:** Proiektu honek esparru interesgarria irekitzen dio paziente kronikoen prozesuan parte hartzen duten erakundeen multzoari, paziente-mota horrek berezko dituen ezaugarriei askoz hobeto egokitzen zaien ikuspegia (bai baliabideei dagokienez, bai arloko profesionalen ezagutzei dagokienez) baitakar berarekin. Ikuspegi horrek oso lotura estua du Lehen Mailako Arretarekin eta gainerako erakundeekin, eta, beraz, askoz eraginkorragoa da baliabideak erabiltzeari dagokienez.

Profesionalek bideratutako berrikuntzarekin loturiko proiektuak:

- **Profesional klinikoek bideratutako berrikuntza:** KEren ezinbesteko osagarria da, haren bidez jasotzen baitira paziente kronikoen “eguneroko martxa” eta osasun-sistemearekin duten harremana benetan ezagutzen dutenen ikuspegia eta asistentzia-ezagutza sortzeko gaitasuna.
- **Kronikagune:** Ikerketaren arloak paziente kronikoen kudeaketari egin diezaiokeen ekarpen guztia biltzen du. Haien arretaren abangoardian kokatzen gaituen tresnarik egokiena da.

KEren barruan deskribatzen diren lanabes guztiak (Chronic Care Model-etik hartuak) baliatzen dituen alor anitzeko jardura hau erabat ezartzen denean, beren prozesu kronikoaren autokudeaketaren ardura izango duten paziente aktiboak sortzea espero dugu; paziente horiek beren osasuna sustatzeko/prebenitzeko hainbat praktika egingo dituzte, eta haien arreta oso ondo antolatuta egongo da, modu egokian koordinatuz asistentzia-mailak (lehen mailakoa eta espezializatua), profesionalak (sendagileak, erizainak, administrariak...), sektoreak (asistentziala eta soziala), esparruak (osasun publikoa eta alderdi asistentziala) eta bertaratutako eta bertaratu beharrik gabeko zerbitzuak (kontsultak, Osarean, ospitaleratzeak, etab.).

Era berean, paziente bakoitzaren prozesuarekin loturiko informazioa modu eraginkorrean kudeatuko da (Osabide Globala), eta haren osasuna zaintzen duten profesionalak modu egokian koordinatuko dira tresna horien bitartez (bertaratu beharrik gabeko kontsulten, telemedikuntzaren, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez). Halaber, pazientearen farmazia-errezetak ere modu seguru eta eraginkorrean kudeatuko dira, pazienteak eta profesionalak administrazio-izapide gogaikarririk jasan beharrik ez izateko moduan.

Gainera, asistentzia-prozesua hobekien ezagutzen dutenek (profesionalek) sortzen duten ezagutza hori guztia Osasun Saileko eta Kronikaguneko diru-laguntzen bitartez bildu, sustatu eta bideratuko da, baita Programa Kontratuetan agertzen diren proiektu eta ekimenen bitartez ere.

Azkenik, finantzaketan egindako —eta zerbitzu-erakundearen Programa Kontratuaren bidez gauzatuko diren— aldaketek KE praktikara eramateko lagungarri izango den egoera berria irudikatzen dute: zerbitzu-erakundeak elkarrekin lan egitera bultzatzen dituzte pazientearen asistentzia-prozesua ardatz hartuta, eta populazioaren ikuspegia erabiltzera behartzen dituzte, geruzatzearen bitartez aukeratutako paziente-taldeetan ebidentzia zientifikoa oinarritutako esku-hartze espezifikoak eginez. Azken bi osagai horiek —populazioaren ikuspegia esku-hartzeak modu eraginkorragoan egiteko, eta osasun-eragileen lan bateratua tokiko eremuan (“mikrosistemak”)— dira gaur egun KEren helburuak lortzeko bi alderdi garrantzitsuenetakoak.

KEren planteamendua nazioartean bildutako ebidentzia eta praktika hoberenetan oinarritzen da. Gainera, ebidentzia eta praktika horiek egiaztatutako emaitzak dituzte. Euskadiko Osasun Sisteman, gure egoerara egokitzeko egiten ari garen lanak ematen digu giltza aurrera egiteko eta gure zentroetan emaitzak eraginkorrak izan daitezen.

KE garatzeko beharrezkoa da aurrera egin eta bizkor jokatzea, eta hori lan-ildo horiek guztiak gure osasun-sistema osoan zabaltzeko dugun gaitasunaren baitan dago orain; zalantzarik gabe, helburu hori lortzen laguntzen ari den funtsezko osagaia profesionalen parte-hartzea da, gero eta gehiago baitira go-goiz horretan murgiltzen direnak. Bidea finkatuta dago jada, eta, aipatu den bezala, diseinatu diren tresnek eta sustatu diren aldaketek emaitza zehatzak dituen errealitatea erakusten dute, eta kronikotasunari heltzeko modu berri honi aurrera egiteko beharrezkoa den lehengia ematen diote.

Laburbilduz, Euskadiko Osasun Sistemak aldaketaren bideari ekin dio gaixo kronikoen erronkari eta aukerari erantzuteko. Aldaketa hori ez da aukera bat, sistemaren jasangarritasunari laguntzeko eta euskal herritarrei merezi eta behar duten arreta emateko egin beharrezkoa baizik. Aldaketa hori lortzea epe ertaineko erronka da. Zuzendaritza estrategiko argia beharko du, baina, batez ere, sistemako profesionalen eta paziente eta zaintzaile gisa sistemako partaide diren herritarren konpromisoa, kemena eta berrikuntza.

MAPA SANITARIOA



Zerbitzu-erakundeak osasun barrutiaren arabera

ARABAKO OSASUN-BARRUTIKO LURRALDE-EREMUA

1. Araba Unibertsitate Ospitalea

2. Lezako Ospitalea

3. Arabako Osasun Mentaleko Sarea

4. Arabako Eskualdeko Zentroak

- Abetxukoko Osasun Zentroa
- Aranbizkarra Ieko Osasun Zentroa
- Aranbizkarra Ilko Osasun Zentroa
- Alde Zaharreko Osasun Zentroa
- Gazalbide-Txagorritxuko Osasun Zentroa
- Labastidako Osasun Zentroa
- La Habanako Osasun Zentroa
- Lakua-Arriagako Osasun Zentroa
- Lakuabizkarrako Osasun Zentroa
- Olagibeleko Osasun Zentroa
- Olarizuko Osasun Zentroa
- San Martingo Osasun Zentroa
- Sansomendiko Osasun Zentroa
- Zaramagako Osasun Zentroa
- Agurain-Salvatierrako Kotsultategia
- Alegria-Dulantziko Kotsultategia
- Araiaiko Kotsultategia
- Berantevillako Kotsultategia
- Bergondako Kotsultategia
- Bernedoko Kotsultategia
- Billarreko Kotsultategia
- Duranako Kotsultategia
- Eltziegoko Kotsultategia
- Espejoko Kotsultategia
- Gopegiko Kotsultategia
- Izarrako Kotsultategia
- Kanpezu-Campezoko Kotsultategia
- Laguardiako Kotsultategia
- Lanciego-Lantziegoko Kotsultategia
- Lapuebla de Labarcako Kotsultategia
- Legutianoko Kotsultategia
- Lezako Kotsultategia
- Maeztuko Kotsultategia
- Moredako Kotsultategia
- Murgiako Kotsultategia
- Nanclares de Ocasto Kotsultategia
- Oiongo Kotsultategia
- Otxandioko Kotsultategia
- Ozaetako Kotsultategia
- Peñacerrada-Urizaharrako Kotsultategia
- Pobeseko Kotsultategia
- Rivabellosako Kotsultategia
- Salcedo-Comuniongo Kotsultategia
- Salinas de Añanako Kotsultategia
- Ubideako Kotsultategia
- Valdegoviako Kotsultategia
- Villabuena de Alava Kotsultategia
- Yecorako Kotsultategia
- Zambranako Kotsultategia
- Zuazo de Kuartangoko Kotsultategia



BIZKAIKO OSASUN-BARRUTIKO LURRALDE-EREMUA

1. Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea

2. Basurtu Unibertsitate Ospitalea

3. Galdakao-Usansolo Ospitalea

4. San Eloy Ospitalea

5. Santa Marina Ospitalea

6. Gorlizko Ospitalea

7. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea

8. Bilboko Eskualdeko Zentroak

- Alonsotegiko Osasun Zentroa
- Altamirako Osasun Zentroa
- Arangoitiko Osasun Zentroa
- Basurtuko Osasun Zentroa
- Begoñako Osasun Zentroa
- Bolueta - Sagarminagako Osasun Zentroa
- Bombero Etxanizeko Osasun Zentroa
- Zazpi kaleetako Osasun Zentroa
- Deustuako Osasun Zentroa
- Gaztelekuko Osasun Zentroa
- Indautxuko Osasun Zentroa
- Javier Saenz de Buruaga Osasun Zentroa
- Centro de Salud La Merced
- Abusuko Osasun Zentroa
- Larreagaburuko Osasun Zentroa
- Otxarkoagako Osasun Zentroa
- Errekaldeko Osasun Zentroa
- San Adriango Osasun Zentroa
- San Inazioko Osasun Zentroa
- Santutxu - Karmeloko Osasun Zentroa
- Santutxu - Solokoetxeko Osasun Zentroa
- Txurdinagako Osasun Zentroa
- Zorrotzako Osasun Zentroa
- Zurbaranko Osasun Zentroa

9. Barrualdeko Eskualdeko Zentroak

- Amurrioko Osasun Zentroa
- Arrigorriagako Osasun Zentroa
- Basauriko Osasun Zentroa
- Bermeoko Osasun Zentroa
- Busturiako Osasun Zentroa
- Etxebarriko Osasun Zentroa
- Galdakaoko Osasun Zentroa
- Gernikako Osasun Zentroa
- Gernikaldeako Osasun Zentroa
- Igorreko Osasun Zentroa
- Kareagako Osasun Zentroa
- Landakoko Osasun Zentroa
- Laudioko Osasun Zentroa
- Lekeitioko Osasun Zentroa
- Markinako Osasun Zentroa
- Matiena - Abadiñoko Osasun Zentroa
- Ondarroako Osasun Zentroa
- Zornotzako Osasun Zentroa
- Aiala - Respaldizako Kontsultategia
- Amorotoko Kontsultategia
- Aperribaiako Kontsultategia
- Arantzazuko Kontsultategia
- Areatza - Villaroko Kontsultategia
- Arkotzako Kontsultategia

- 
- Arrankudiagako Kontsultategia
 - Arratzuko Kontsultategia
 - Arteako Kontsultategia
 - Artziniegako Kontsultategia
 - Axpe - Atxondoko Kontsultategia
 - Aulestiako Kontsultategia
 - Baranbioko Kontsultategia
 - Bediako Kontsultategia
 - Berriatuako Kontsultategia
 - Berrizko Kontsultategia
 - Dimako Kontsultategia
 - Eako Kontsultategia
 - Elantxobeko Kontsultategia
 - Elorrioko Kontsultategia
 - Ereñoko Kontsultategia
 - Errigoitiko Kontsultategia
 - Etxebarriako Kontsultategia
 - Foruako Kontsultategia
 - Garaiko Kontsultategia
 - Gautegiz de Arteagako Kontsultategia
 - Gizaburuagako Kontsultategia
 - Gorozikako Kontsultategia
 - Ibarrangeluako Kontsultategia
 - Ibarruriko Kontsultategia
 - Ispasterreko Kontsultategia
 - Iurretako Kontsultategia
 - Izurzako Kontsultategia
 - Larrabetzuko Kontsultategia
 - Lemoako Kontsultategia
 - Luiaondoko Kontsultategia
 - Mañariako Kontsultategia
 - Mendatako Kontsultategia
 - Mendexako Kontsultategia
 - Morgako Kontsultategia
 - Mundakako Kontsultategia
 - Munitibarreko Kontsultategia
 - Muruetako Kontsultategia
 - Muxikako Kontsultategia
 - Nabarnizeko Kontsultategia
 - Okondoko Kontsultategia
 - Orduñako Kontsultategia
 - Orozkoko Kontsultategia
 - Retes de Llantenoko Kontsultategia
 - San Migueleko Kontsultategia
 - Ugao - Miravalleseko Kontsultategia
 - Usansoloko Kontsultategia
 - Zaldibarko Kontsultategia
 - Zaratamoko Kontsultategia
 - Zeanuriko Kontsultategia
 - Zeberioko Kontsultategia
 - Zelaieta - Abadiñoako Kontsultategia
 - Ziortza - Bolivarko Kontsultategia

10. Uribeko Eskualdeko Zentroak

- Alangoko Osasun Zentroa
- Algortako Osasun Zentroa
- Astrabuduako Osasun Zentroa
- Derioko Osasun Zentroa
- Erandioko Osasun Zentroa
- Gorlizko Osasun Zentroa
- Areetako Osasun Zentroa
- Leioako Osasun Zentroa
- Mungiako Osasun Zentroa
- Sopelako Osasun Zentroa
- Andrakaseko Kontsultategia
- Armintzako Kontsultategia
- Arrietako Kontsultategia
- Bakioko Kontsultategia
- Barrikako Kontsultategia
- Berangoko Kontsultategia
- Erandio Goikoako Kontsultategia
- Fikako Kontsultategia

- Fruizko Kontsultategia
- Gamiz - Fikako Kontsultategia
- Gatikako Kontsultategia
- Lemoizko Kontsultategia
- Lezamako Kontsultategia
- Loiuko Kontsultategia
- Maruriko Kontsultategia
- Meñakako Kontsultategia
- Plentziako Kontsultategia
- Sondikako Kontsultategia
- Urdulizko Kontsultategia
- Zamudioko Kontsultategia

II. Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko Zentroak

- Balmasedako Osasun Zentroa
- Castañoseko Osasun Zentroa
- Errepelegako Osasun Zentroa
- Errontegiko Osasun Zentroa
- Kabiezeseko Osasun Zentroa
- Kuetoko Osasun Zentroa
- La Pazeko Osasun Zentroa
- Lutxanako Osasun Zentroa
- Mamarigako Osasun Zentroa
- Markonzagako Osasun Zentroa
- Muskizeko Osasun Zentroa
- Ortuellako Osasun Zentroa
- San Vicenteko Osasun Zentroa
- Sodupeko Osasun Zentroa
- Trapagarango Osasun Zentroa
- Urbango Osasun Zentroa
- Zaballako Osasun Zentroa
- Zallako Osasun Zentroa
- Centro de Salud Zuazo
- Zuazoko Osasun Zentroa
- Arangurengo Kontsultategia
- Gallartako Kontsultategia
- Gordexolako Kontsultategia
- Güeñeseke Kontsultategia
- Karrantzako Kontsultategia
- La Arboledako Kontsultategia
- La Balugako Kontsultategia
- La Cuadrako Kontsultategia
- La Iberiako Kontsultategia
- Lanestosako Kontsultategia
- Las Carrerasesko Kontsultategia
- Mercadilloko Kontsultategia
- San Estebango Kontsultategia
- San Migueleko Kontsultategia
- San Pedroko Kontsultategia
- Traslaviñako Kontsultategia
- Trucioseko Kontsultategia
- Zaramilloko Kontsultategia
- Zierbenako Kontsultategia

GIPUZKOAKO OSASUN-BARRUTIKO LURRALDE-EREMUA

1. Donostia Unibertsitate Ospitalea

2. Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuaren Zentroak

- Zumarraga Ospitalea
- Azpeitiako Osasun Zentroa
- Azkoitiako Osasun Zentroa
- Beasaingo Osasun Zentroa
- Lazkaoko Osasun Zentroa
- Legazpiko Osasun Zentroa
- Ordiziako Osasun Zentroa
- Zumarragako Osasun Zentroa
- Ataungo San Gregorio Kontsultategia
- Ataungo San Martin Kontsultategia

- Errezilgo Kontsultategia
- Ezkio-Itsasoko Kontsultategia
- Idiazabalgo Kontsultategia
- Itsasondoko Kontsultategia
- Mutiloako Kontsultategia
- Olaberriako Kontsultategia
- Ormaiztegiko Kontsultategia
- Segurako Kontsultategia
- Zaldibiako Kontsultategia
- Zegamako Kontsultategia

3. Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuko Zentroak

- Bidasoa Ospitalea
- Beraun Osasun Zentroa
- Hondarribiako Osasun Zentroa
- Irun-Erdialdeko Osasun Zentroa

4. Debarreneneko Erakunde Sanitario Integratuko Zentroak

- Mendaro Ospitalea
- Debako Osasun Zentroa
- Eibarreko Osasun Zentroa
- Elgoibarko Osasun Zentroa
- Ermuako Osasun Zentroa
- Mendaroko Osasun Zentroa
- Mutrikuko Osasun Zentroa
- Soralezeko Osasun Zentroa
- Torrekuako Osasun Zentroa
- Itziar Kontsultategia
- Mallabia Kontsultategia


5. Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Zentroak

- Debagoieneko Ospitalea
- Arrasateko Anbulatorioa
- Bergarako Osasun Zentroa
- Oñatiko Osasun Zentroa
- Antzuolako Kontsultategia
- Aretxabaletako Kontsultategia
- Elgetako Kontsultategia
- Eskoriatzako Kontsultategia

6. Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea

7. Gipuzkoako Eskualdeko Zentroak

- Aiako Osasun Zentroa
- Alde Zaharreko Osasun Zentroa
- Alegiako Osasun Zentroa

- 
- 
- Altzako Osasun Zentroa
 - Amara Berriko Osasun Zentroa
 - Amara Zentroko Osasun Zentroa
 - Andoaingo Osasun Zentroa
 - Astigarragako Osasun Zentroa
 - Bidebietako Osasun Zentroa
 - Dunboako Osasun Zentroa
 - Egiako Osasun Zentroa
 - Errenteriako Iztietako Osasun Zentroa
 - Getariako Osasun Zentroa
 - Groseko Osasun Zentroa
 - Hernaniko Osasun Zentroa
 - Ibarako Osasun Zentroa
 - Intxaurrondoko Osasun Zentroa
 - Lasarteko Osasun Zentroa
 - Legorretako Osasun Zentroa
 - Lezoko Osasun Zentroa
 - Loiolako Osasun Zentroa
 - Oiartzungo Osasun Zentroa
 - Ondarretako Osasun Zentroa
 - Orioko Osasun Zentroa
 - Pasai Antxoko Osasun Zentroa
 - Pasai Donibaneko Osasun Zentroa
 - Pasai San Pedroko Osasun Zentroa
 - Tolosako Osasun Zentroa
 - Urnietako Osasun Zentroa
 - Usurbilgo Osasun Zentroa
 - Villabonako Osasun Zentroa
 - Zarautzko Osasun Zentroa
 - Zestoako Osasun Zentroa
 - Zumaiako Osasun Zentroa
 - Amezketako Kontsultategia
 - Anoetako Kontsultategia
 - Asteasuko Kontsultategia
 - Berastegiko Kontsultategia
 - Bidegoiango Kontsultategia
 - Irurako Kontsultategia
 - Lizartzako Kontsultategia



Aintzatespenak

Erakundeek aintzatespen hauek lortu dituzte 2011. urtearen amaierara bitartean:

1. EFQM Bikaintasunaren Europako sarian finalista

- Bilbo Eskualdea

2. OMARS saria - Gizarte Erantzukizunaren esparruan

- Galdakao-Usansolo Ospitalea

3. Best in Class saria Lehen Mailako Arretako Zerbitzu hoberenari

- Bilbo Eskualdea

4. Best in Class saria Larrialdietako Zerbitzu hoberenari

- Donostia Unibertsitate Ospitalea

5. Best in Class saria Psikiatriako Zerbitzu hoberenari

- Basurtu Unibertsitate Ospitalea

6. Best in Class saria Nefrologiako Zerbitzu hoberenari

- Galdakao-Usansolo Ospitalea

7. 2010eko Kudeaketa Publikoaren Bikaintasunaren saria

- Gipuzkoa Ekialdea Eskualdea

8. Pazienteen otorduak PDA bitartez egiteko sistemari saria Ospitaleetako Ostalaritzako III. Biltzar Nazionala

- Galdakao-Usansolo Ospitalea

9. DV Multimedia saria

- Mendaroko Ospitalea

10. Asistentzia-kalitateari saria: historia kliniko elektronikoa - Osabide Globala - Asistentzia Kalitatearen Espainiako Elkartearen XXIX. Biltzarra

- Osakidetza

11. RS10 ziurtagiria - Gizarte Erantzukizuna

- Bilbo Eskualdea

12. BIKAIN sariak - Euskararen erabileraren aintzatespena

- 
- Mendaroko Ospitalea
 - Zumarragako Ospitalea
 - Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdea
 - Galdakao-Usansolo Ospitalea

I3. Enpresentzako Europako Ingurumen Saria - EAEko Atala

- Bilbo Eskualdea

Argitalpen korporatiboak

EUSKARA

- **Lehen Mailako Arretarako gidak. 2011ko abendua:**

- MEDIKUNTZA OROKORRA EUSKARAZ.
- PEDIATRIA EUSKARAZ.
- HARRERA EUSKARAZ.

HIESAREN PLANA

- **Irakaslearen eta ikaslearen gidak. 2011ko urtarrila:**

- PREVENCIÓN del VIH/SIDA, Infecciones de Transmisión Sexual y Embarazo no deseado.
- GIB/HIESAren, Sexu Bidez Transmisititutako Infekzioen eta nahi gabeko Haurdunaldiaren PREBENTZIOA.

- **DVD:**

- SEXO SEGURO - SEXU SEGURUA.
- Prevención del VIH/Sida, Infecciones de Transmisión Sexual y embarazo no deseado - GIB/HIESAren, Sexu Bidez Transmisititutako Infekzioen eta nahi gabeko Haurdunaldiaren PREBENTZIOA

LAN-OSASUNA

- **Sortu diren dokumentu berriak:**

- AMIANTOARI BURUZKO INFORMAZIO-ESKULIBURUA. I. ARGITALPENA. 2011ko urtarrila.
- INFORMAZIO-ESKULIBURUA. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA MANTENTZE-LANETAKO LANPOSTUETAN. 2011ko martxoa.

- **Aldaketak eta berrikuspenak:**

- PT-VG03_02 PROTOKOLOA. - TXERTAKETAK ETA KIMIOPROFILAXIA. 2. BERRIKUSPENA.

ARGITALPEN BIDEOGRAFIKOAK

- **Komunikazio medikoko unitatea. 2011ko jardueraren laburpena**

1. Ikus-entzunezkoen ekoizpena	
Bideoak egitea	78
Masterrak eta egileak (DVD)	80
Multimedia-aurkezpenak	57
Bideo digitala prozesatu eta kodetzea	272
Material grafikoa egitea	38
Zinta / CD / DVD bikoizketa	805
Irudiaren tratamendu digitala	1.808
2. Laguntza teknikoa	119
3. Komunikazio-arloko aholkularitza	22
4. Prestakuntza eta irakaskuntza	31



2011. urtean medikuntza- eta osasun-arloko 78 bideo egin ziren, hau da, 2010. urtearekin alderatuta, balio erantsi handiko ikus-entzunezko produktu gehixeago sortu ziren.

Ekoizpenaren % 79 Bizkaiko zentroeiei dagokie; % 14, Arabakoei; eta % 7, Gipuzkoakoei. Gaiei dagokienez, honela banatzen dira:

Zauri txikiko kirurgia	41
Teknika kirurgikoa	29
Graduondoko irakaskuntza	3
Osasun-hezkuntza	2
Erizaintzako irakaskuntza	1
Kudeaketa, marketina eta komunikazioa	1
Osasun-hezkuntza	1



“Osasun Zientzietako Argitalpen Elektronikoen Funtsa”, bestalde, 1.371 ikus-entzunezko erregistro izatera iritsi da.

Iragan den urtean gorantz jarraitu du informazio biomedikoa duten edukien ekoizpenak eta sorkuntzak, eta igo egin da, orobat, ikus-entzunezkoen eta multimedio produktuen eskaria. Horregatik, eskaintzen ziren zerbitzuak berrantolatu beharra aipatzen genuen iaz, eta aurten premiazko beste behar bat gehitu zaio iaz esandakoari: erabat eraginkorrak izateko ahalegina egin beharra, gehiago ematea eta hoberena ematea, baliabideak ahalik eta modurik egokienean erabiliz. Inoiz baino beharrezkoagoa da orain kalitatea bilatzea eta bikaintasunerantz jotzea. Epe laburreko gure helburua Komunikazio Medikoko Unitatea sendotzea eta haren prozedura eta zerbitzuen normalizazio- eta ziurtatze-prozesuari ekitea izango da.

Interes bereziko araudia

I. AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

1.1. 140/2011 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Transferentzien Bitariko Batzordearen 2011ko ekainaren 22ko akordioa onartzen duena. Akordio horren arabera, espetxe-osasunaren esparruko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio.

2. ESTATUKO ARAUDIA

2.1. 894/2011 ED, ekainaren 24koa, espetxe-osasunaren esparruko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko buruzkoa (BOE 155. zenb., 2011ko ekainaren 30ekoa).

2.2. 1039/2011 ED, uztailaren 15ekoa, Osasun Sistema Nazionaleko osasun-prestazioak eskuratzeko gehienezko denbora bermatzeko esparru-irizpideak ezartzen dituen (BOE 207. zenb., 2011ko abuztuaren 29koa).

2.3. 27/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeko buruzkoa (BOE 184. zenb., 2011ko abuztuaren 2koa).

2.4. 33/2011 Legea, urriaren 4koa, Osasun Publikoko Orokorra (BOE 240. zenb., 2011ko urriaren 5ekoa).

2.5. 37/2011 Legea, urriaren 10ekoa, prozesuak azkartzeko neurriei buruzkoa. Lege horrek honako beste lege hauek aldatzen ditu: Prozedura Kriminalaren Legea, Administrazioarekiko auzitarako eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea eta Prozedura Zibilar buruzko urtarilaren 7ko 1/2000 Legea.





Pertsonak



Plantilla


PLANTILLAREN BANAKETA

- Langileen banaketa kolektibo profesionalen arabera




LANGILEAK GUZTIRA
25.825


• Langileen banaketa erakunde motaren arabera




• Arabako langileen banaketa



• Gipuzkoako langileen banaketa




• Bizkaiako langileen banaketa




PLANTILLAREN EZAUGARRIAK


• Banaketa generoaren arabera




ADIN PIRAMIDEA




• Banaketa generoaren eta adin taldearen arabera



• Banaketa generoaren eta lanbide taldeen arabera



• Banaketa adinaren eta lanbide taldeen arabera



PLANTILLAREN PLANIFIKAZIO ETA ANTOLAKETA

	Fakultatiboak	Sanitario ez-fakultatiboak	Mantentze eta Zerbitzu Orokorrak	Administrazio funtzioa	Guztira
Lekualdaketak	277	599	90	154	1.120
Egokitzapena	337	154	75	79	645
Hierarkizazio administratiboa	15	2			17

PLANTILLA FUNTZIONALAK GARATU ETA ONARTZEA

2011ko uztailaren 22an, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak oniritzia eman zion Osakidetzaren egiturazko langile-taldeari. Onarpen horretan 2011ko maiatzaren 10eko Gobernu Kontseiluaren akordioak onetsitako gehieneko mugak aldatu ziren, ekainaren 28ko —espetxe-osasunaren esparruko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzko— 140/2011 Dekretuaren bidez transferituriko espetxeetako langileak Osakidetzari atxiki izanaren ondorioz. Urte-amaieran, hau da Osakidetzaren egiturazko plantilla, lanbide-taldeen arabera sailkatuta:

	LANBIDE TALDEA	GIZA BALIABIDEEN GEHIENEZKO KOPURUA
A.1	Fakultatibo Mediko eta Teknikoak	6.305
A.2	Goi Mailako Teknikariak	431
B.1	Diplomadun Sanitarioak	8.251
B.2	Erdi Mailako Teknikariak	208
C.1	Osasun Arloko Teknikari Espezialistak	847
C.2	Administrazioko Teknikari Espezialistak	537
C.3	Lanbideko Teknikari Espezialistak	234
D.1	Osasun Arloko Teknikari Laguntzailea	4.060
D.2	Administrazioko Teknikari Laguntzailea	2.125
D.3	Lanbideko Teknikari Laguntzaileak	429
E.1	Operarioak	2.273
PD	Zuzendaritza Karguak	125
	Guztira	25.825

Hautaketa eta horniketa

2011KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

2011ko maiatzaren 9an, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 2011rako Ente Publikoak plazaratu duen Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen zuen akordioari oniritzia eman zion. Akordioa 2011ko ekainaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, eta, guztira, 2.600 destino eskaintzea aurreikusten zen.

Ekainaren 15ean Osakidetzako zuzendari nagusiak 1282/2011 Ebazpena eman zuen, eta, haren bidez, Osakidetzan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartu ziren. Ebazpena 2011ko uztailaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.


Parte-hartzaile ugari izango zela aurreikusita, erabaki zen fasetan banatuta argitaratzea kategoria bakoitzarentzako oinarri espezifikoak dituzten erabakiak, eta hala irekitzea izena emateko epea ere.

Hori horrela, 2011ko uztailaren 28ko, irailaren 15eko, urriaren 27ko, azaroaren 15 eta 29ko eta abenduaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zuzendari nagusiaren erabakiak argitaratu ziren, non 46 kategoriarren oinarri espezifikoak ezartzen baitziren eta hautaketa-prozesuan izena emateko epea irekitzen baitzen.

2011ko abenduaren 31n, aurreikusitako 60 kategorietako 46ren oinarri espezifiko berri ematen zuten eta haietan izena emateko epea irekitzen zuten erabakiak argitaratu ziren. Hain zuzen, 46 kategoria horien artean zeuden Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak, bai eta hautagai gehien izan ohi dituztenak ere (Erizaina, Administraria, Erizaintzako laguntzailea, Administrari-laguntzailea, Zelaria, Zerbitzuetako langilea). Parte hartzeko 74.578 eskari jaso ziren.

Hona hemen jasotako eskariak lanbide-taldean arabera sailkatuta:

LANBIDE TALDEA		DEITUTAKO KATEGORIAK	JASOTAKO ESKAERAK
A.1	Fakultatibo Mediko eta Teknikoak	40	3.721
B.1	Diplomadun Sanitarioak	1	12.269
C.2	Administrazioko Teknikari Espezialistak	1	5.649
D.1	Osasun Arloko Teknikari Laguntzailea	1	12.017
D.2	Administrazioko Teknikari Laguntzailea	1	14.092
E.1	Menpekoak / Operarioak	2	26.830
Guztira		46	74.578



Onartuen eta baztertuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak dituzten erabakiak fasetan banatuta argitaratzea aurreikusi da, deialdien argitalpenaren arabera eta oposizio-faseko probak egiteko aurreikusten diren daten arabera.

2008KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian kategoria guztietako behin betiko zerrendak eta destinoen esleipenak jasotzen dituen Osakidetzako zuzendari nagusiaren erabakiak argitaratu eta pertsona esleipendunak beren lanpostuaz jabetu ondoren amaitu zen 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza.

Era berean, eta ondoriozko faseari dagokionez, erakundearen webgunean Giza Baliabideen zuzendariaren erabakiak argitaratu ziren, eskaintzen ziren destinoen eta destinoa aukeratu zezaketen hautagaien zerrendekin, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zuzendari nagusiaren erabakiak argitaratu ziren, destinoen esleipenei eta esleipendunak destinoez jabetzeari buruzkoak.

MUGIKORTASUNA

2011ko maiatzaren 9an, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak hartutako akordioan Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua Erakunde Publikoko zerbitzu-erakundeetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenaren bitartez betetzeko irizpideak eta behin betiko barne-mugikortasunaren bitartez lanpostuak betetzeko irizpide orokorrak onartu zituen. Akordio hori 2011ko ekainaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Lantaldea eratu da informatika-arloko beharrak aztertze eta aplikazio berriak diseinatzeko. Aplikazio horiekin azkarrago egin ahal izango dira behin betiko barne-mugikortasuneko prozesuak zerbitzu-erakundeetan, helburua lortu ahal izateko, eta erakundearen informatika-proiektuekin bat egin beharko dute.

Lantaldea eratze asmoa dago informatika-arloko beharrak aztertze, kategoria/lanpostu funtzional guztietan eta zerbitzu-erakunde guztietarako aldi baterako barne-sustapenen eta zerbitzu-eginkizunen deialdi korporatiboak egin eta dagozkion zerrendak osatu ahal izan daitezen.

Osakidetzako zerbitzu-erakundeek barne-mugikortasunaren araudia egokitzeko eta lantzeko prozesuak hasi dituzte, bai eta zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapeneko prozesuen deialdiak ere, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko akordioan agertzen diren irizpideei jarraituz.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

2011ko lehen seihilekoan zuzendari nagusiaren erabakiak argitaratu ziren, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen 7 kategoriarik zegozkien 21 plazaren destinoak esleitzeari eta profesionalak lanpostuez jabetu eta destinoko erakunde berrian sartzeari buruzkoak. Profesional horiek destino berriaz jabetzeaz amaitu zen 2009ko Lekualdatze-lehiaketa.



2011ko bigarren hiruhilekoan 2012ko Lekualdatze-lehiaketaren deialdi-prozesuaren berrikusketa hasi zen.

ZERBITZU-EGINKIZUNAK

Hurrengo laukietan, ezkerreko atalak langileei baimendutako zerbitzu-eginkizunen kopurua adierazten du; hain zuzen, Osakidetzan plaza jabetzan izanik, beste autonomia-erkidego batzuetako osasun-zerbitzuetan lan egiteko langileei baimendutako zerbitzu-eginkizunen kopurua. Eskuineko atalak, berriz, zerbitzu-eginkizunak eman zaizkien pertsonen kopurua; hain zuzen, beste osasun-zerbitzu batzuetan plaza jabetzan izanik, Osakidetza zerbitzu-erakundeetan zerbitzu-eginkizunak eman zaizkien pertsonen kopurua.

BESTE OSASUN ZERBITZU BATZUETARAKO DESTINOAK	
Baimenak	Luzapenak
18	24

BESTE OSASUN ZERBITZU BATZUETATIK DATOZENAK	
Onarpenak	Luzapenak
31	65

2011KO KONTRATAZIO-ZERRENDAK

· Adin-taldean eta sexuaren arabera parte-hartzea lehenengo eta bigarren itzulietan.
EMAKUMEAK



· Adin-taldean eta sexuaren arabera parte-hartzea lehenengo eta bigarren itzulietan.
GIZONEZKOAK



Detektatutako minbizi inbaditzaileen artean, kasuen % 25en kolonoskopia izan zen behin betiko tratamendua. I. eta II. faseetan detektatu ziren % 70.

DOWNen SINDROMEAREN ETA BESTE KROMOSOMOPATIA BATZUEN BAHEKETA

2011n sendotu egin zen Down-en sindromearen eta beste kromosomopatia batzuen jaio aurreko baheketa-programa osasun-eskualde guztietan, eta diziplina anitzeko profesionalek osatutako Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea eratu zen, joerak aztertzeko eta prozesuak hobetzeko aholkuak ezartzeko.

2011n 16.600 baheketa egin dira, eta ukatze-tasa % 1 baino txikiagoa izan da. Emakumeen % 36,6k 35 urte baino gehiago zituen, eta % 5,6k, 40 baino gehiago. Emaizta positiboen batez besteko tasa % 5,5 izan zen (KT % 95 5,18 - 5,87). 2010ean baino handiagoa izan zen, orduan % 4,559 izan baitzen (KT % 95 4,25-4,87).

Baheketa zentroak	Eskaerak	Emakumezkoak 35 urte > (%)	Gizonezkoak 40 urte > (%)
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	3526	37,9	5,5
Basurtutuko Unibertsitate Ospitalea	2354	37,8	6,3
Galdakaoko Ospitales	2303	37,4	6,8
Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2650	37,3	6,2
Arabako Unibertsitate Osp. - Txagorritxu	2581	37,1	5,2
Tolosa - La Asunción	591	36,4	4,9
Debagoieneko ESla	464	35,8	5,2
Bidasoako ESla	681	34,4	5,6
Goierri Urola-Garaiko ESla	913	29,6	3,8
Debarreneneko ESla	537	29,6	4,5
Guztira	16.600	36,6	5,6

I Taula - 2011n egindako baheketak bahetze-zentrozen arabera

2. taulan, 2009/01/01etik 2011/12/31ra egindako baheketak ikusten dira (gehienak lehenengo hiruhilekoari dagozkio). Emaizta positiboen tasa % 5,316 izan zen {KT %95 (5,091-5,541)}. Guztira 3.363 teknika inbaditzaile egin ziren, eta diagnostikoa berresteko erantzuna 3 egunera eman zen.

Amniozentesiaren ondorengo fetu-galera % 0,5 izan zen, 2010ean baino txikiagoa (2011n % 0,2 jaitsi zen).

21. trisomiarentzako baheketaren sentikortasuna % 87,88 izan zen (KT % 95 82,31- 93,45), eta espezi-fikotasuna, % 92,5 (KT % 95 94,98-95,51). 3 trisomiarik garrantzitsuenentzako sentikortasuna % 86,71 izan zen (KT % 95 81,65-91,76).


3 trisomia garrantzitsuenentzat okerreko negatibotzat hartu ziren 23 kasuetatik, emakumeen adina 35 urtetik beherakoa izan zen 13 kasutan (% 56). Kasuen % 82,6n anomalia jaio aurretik detektatu zen eko-grafia morfologikoaren eta/edo teknika inbaditzailearen bidez.

Baheketa zentroak	Baheketa eskaera	Emakumeen batez-beste adina	Emak. >35 urte %	1. hiru hileko baheketa	2. hiru hil. baheketa	Positiboko arriskua %	21 trisomiako arriskuaren %	Teknika inbaditzaileak	Tekn. azkarraren atzerapena (egunak)	kariotip. atzerapena	itxitako kasuak
Gurutzeta U. Osp.	8360	32,8	36,41	96,85	3,15	6,92	6,75	750	2	13	6138
Basurtu U. Osp.	6094	32,8	35,23	98,05	1,95	6,96	6,90	681	2	15	4386
Galdakao Osp.	5964	32,5	35,55	95,54	4,46	3,85	3,78	392	4	11	4837
Donostia U. Osp.	4761	32,9	36,06	97,63	2,37	4,26	4,21	655	3	10	3304
Araba U. Osp.	4665	32,3	36,12	95,28	4,72	4,69	4,61	209	4	13	3238
Tolosa-La Asunción	2089	32,1	29,20	97,61	2,39	5,30	5,25	246	3	14	1575
Debagoieneko ESla	1513	32,5	33,71	97,49	2,51	4,30	4,23	106	1	15	1054
Bidasoako ESla	1324	32,2	30,36	95,69	4,31	3,03	3,03	130	2	13	1016
Goierri-Urola G. ESla	1155	32,7	33,59	98,70	1,30	5,74	5,65	130	3	13	820
Debarreneko ESla	1042	32,8	33,97	98,85	1,15	2,70	2,70	62	4	15	773
Enkarterri	374	32,6	36,90	96,79	3,21	5,29	5,29	29	2	12	240
Guztira	37.341	32,6	35,12	96,98	3,12	5,31	5,23	3.363	3	13	27.381

2 Taula - 2009-2011n egindako baheketa bahetze-zentroen arabera

Itxitako 27.381 kasutatik, % 95,9 jaiotzetiko anomaliarik detektatu gabeko jaioberriak izan ziren. Haurdunaldia Borondatez Etetea (HBE) 267 kasutan gertatu zen, jaiotze aurretik kromosoma-anomaliak detektatu zirelako baheketa ondorioz.

Jarraipen Batzordeak hobekien balioetsi dituen programaren alderdiak hauek izan dira: haurdun dauden emakumeek programan sartzeko duten erraztasuna, eta baheketa nola dagoen antolatuta emakumeak erakartzeari, informazioa emateari, gomendatutako garaian probak egiteari, eta programaren kalitate-kontrolari dagokienez, bai eta detekzio-tasak oinarri hartuta emaitzei dagokienez ere.



Ikerketa

SARRERA

Gure osasun-erakundean egin den ikerketa zientifikoari buruzko datuak BIOEFek ematen ditu, eta, fundazio horren barruan, O+Iker (Osasun Ikerketaren Euskal Erakundea) da ikerketa sustatzeko eta kudeatzeko ardura duen erakundea.

O+Iker erakundearen eginkizunak hauek dira: beharrak identifikatzea eta ikerketa-gaitasunen inbentarioa egitea, osasun-sistemari aholku zientifikoa eta teknikoa ematea hari dagokion eskumen-arloari buruz (institutuak sortzea, Biobankua, giza baliabideak, etab.), ikerketa kudeatzeko tresna berriak garatzea (saio klinikoak, patenteak, etab.), pertsonal kliniko ikertzaileari laguntza ematea (hainbat zentzoren arteko koordinazioa, ikerketari laguntza emateko zenbait zerbitzu, proiektuen eta deialdien kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa), funtsak lortzea eta osasun-sisteman ikerketaren kultura garatzeko lan egitea.

O+Iker erakundeak kanpo-finantzaketatik ikerketarako datozen diru-laguntzen eskaera eta kontzesio guztiak bideratzen eta kudeatzen ditu Osakidetza guztirako, deszentralizaturiko ikerketa-erakundeei (Kronikgune, Biodonostia Institutua, eta, laster, Biogurutzeta) dagozkienak izan ezik. Hala ere, kudeaketa-prozedura eta lankidetzak hitzarmen guztiak koordinatzen, arautzen eta homogeneizatzen ditu, guztientzako sareko zerbitzuak eskaintzen ditu eta Osakidetzako zerbitzu-erakunde eta ikerketa-zentro guztiek lortutako ikerketa-emaitzak erregistratzen ditu, baita izaera juridiko propioa izanik ere Osakidetzaren edo Osasun eta Kontsumo Sailaren barnean dauden ere.

2011n JARDUNEAN IZAN DIREN IKERKETA-PROIEKTUAK

Kanpo-finantzaketaren bidez ikerketarako lortutako laguntzak honela sailkatzen dira:

- a) Ikerketa-proiektuei emandako laguntzak; proiektuaren zuzeneko kostua finantzatzen dute, baina ez proiektu hori egiten duten osasun-arloko langileen orduak. Kostu horietan sartzen da ekipamendu inbentariagarria, material suntsigarria, kongresu eta bileretarako bidaiak eta dietak, eta ikertzaileen edo proiektuari laguntzeko beste langile-mota batzuen behin-behineko kontratuak. Ikerketa-proiektuetako bekadunaren irudia ia erabat desagertuta dago, azken lege-aldaketak izan zirenetik.
- b) Ikerketarako azpiegiturak batera finantzatzeko laguntzak (ekipamendu handiak).
- c) Deialdi jakinen bidez giza baliabideak batera finantzatzeko laguntzak: hainbat motatako deialdiak dira; adibidez, doktoretza aurreko bekak, doktoretza ondorengo lan-kontratuak, sei urteko ikerketa-kontratuak, hiru urteko ikerketa-prestakuntzarako kontratuak, BAME, BAFE etab. amaitu duten langileentzat, eta hiru urteko lan-kontratuak ikerketa-laguntzarako teknikarientzat. Halaber, ikasketak zabaltzeko laguntzak, osasun-arloko langileek ikerketarako denbora liberatzeko laguntzak (Jarduera Ikertzailea Areagotzeko Programa), eta abar.

2011n, Euskal Osasun Publikoan 710 ikerketa-proiektu egin dira, eta proiektu horiek 39,9 milioi euroko urte anitzeko kanpo-finantzaketa izan dute.

Proiektu guztien % 88 Osakidetzako zentro eta zerbitzu-erakundeetan egin dira; gainerakoa, berriz, Osasun Saileko Zuzendaritzetan egin da, besteak beste. Proiektu horiek egin dituzten zentroak I. taulan jaso dira, eta batez ere euskal ospitale handiak dira. Hiru lurraldeetako Lehen Mailako Arretan egin dira ikerketa-proiektu guztien % 7.

PROIEKTUAK EGIN DITUZTEN ZENTROAK	Proiektuak eta laguntza aktiboak		Emandako funtsak	
	Nº	%	€	%
GURUTZETA U. OSP. - BIOGURUTZETA INST.	185	26,1	12.294.426	30,8
DONOSTIA U. OSP. - BIODONOSTIA INST.	143	20,1	9.844.517	24,6
AOU - TXAGORRITXUKO EGOITZA	34	4,8	2.534.989	6,3
AOU - SANTIAGOKO EGOITZA	36	5,1	1.712.043	4,3
BASURTU U. OSP.	101	14,2	2.467.477	6,2
GALDAKAO - USANSOLOKO OSPITALEA	49	6,9	1.902.342	4,8
LEHEN MAILAKO ARRETA	47	6,6	2.141.590	5,4
OSAKIDETZAKO ZERBITZU ZENTRALAK	8	1,1	646.800	1,6
OSASUN MENTALA	9	1,3	236.867	0,6
OSATEK	6	0,8	221.558	0,6
BESTE BATZUK-OSAKIDETZA	8	1,1	215.706	0,5
OSASUN-SAILA eta LZ	65	9,2	3.726.698	9,3
BIOEF	13	1,8	1.817.345	4,5
OSAKIDETZAKOAK EZ DIREN BESTE BATZUK	6	0,8	186.289	0,5
GUZTIRA	710	100	39.948.647	100

I. Taula – Proiektuak egin dituzten zentroak eta BIOEF, Biodonostia edo Kronikagunek kudeatuta kanpo-finantzaketa lortu duten ikerketarako beste laguntza batzuk.

• Proiektu berriak

Proiektu guztien % 27 2011n hasitako proiektu berriak izan dira, eta ia 40 milioi euroko kopuru osotik % 21eko balio ekonomikoa izan dute. Ikerketa-proiektuek hiru urte irauten dute batez beste. Osakidetza zentro handietan egindako bolumen nahiko handiko ikerketa zientifikoko proiektu berrien ehunekoa bi muturren artean dago: Basurtuko Unibertsitate Ospitalean proiektu berriak % 8 izan dira 2011n, eta Galdakao-Usansolo Ospitalean, berriz, ia % 40 (II. taulan jaso dira datu horiek).

PROIEKTUAK EGIN DITUZTEN ZENTROAK	2011ko proiektu berriak		Jarduneko proiektuak
	Nº	%	Guztira
GURUTZETA U. OSP. - BIOGURUTZETA INST.	31	17	185
DONOSTIA U. OSP. - BIODONOSTIA INST.	46	32	143
AOU - TXAGORRITXUKO EGOITZA	10	29	34
AOU - SANTIAGOKO EGOITZA	13	36	36
BASURTU U. OSP.	8	8	101
GALDAKAO - USANSOLOKO OSPITALEA	19	39	49
LEHEN MAILAKO ARRETA	6	13	47

II. Taula - 2011n emandako ikerketa-proiektu berriak, urte horretan jardunean izan diren proiektu guztien artean Osakidetza zentro handietakoak soilik agertzen dira, baina ehunekoak proiektu berri guztiei dagozkie

• Kanpo-finantzaketaren jatorria

2011n jardunean izan diren proiektuak, berriak (% 23) nahiz aurreko urteetan hasiagatik oraindik indarrean daudenak, hauen bidez finantzatu ziren: diru-laguntza lehiakor publikoak (administrazio publikoen deialdiak), diru-laguntza nominatiboak (proiektu jakinentzako diru-laguntza finalistak), hitzarmenak, dohaintzak eta zerbitzuen fakturazioak. Finantza-iturri nagusiak III. taulan deskribatzen dira. Taula horretan ikusten da funtsen erdia Estatuko Administrazio Orokorretik datorrela; euskal administrazioek (Gobernuak, foru-aldundiek eta udalek), berriz, laurden bat eman dute, eta % 5 baino ez etorri nazioarteko iturrietatik.

Finantzaketa-eredua	Kop.	Kop. %	€	€ %
Estatuko Administrazio Orokorra	192	27	19.651.324	49
Euskal administrazio publikoak	252	35	10.378.394	26
Erakunde pribatuak	201	28	2.009.495	5
Nazioartekoak	26	4	2.009.495	5
Beste erakunde publiko batzuk	39	5	1.668.210	4
Orokorrean, guztira	710	100	39.948.647	100

III. Taula - 2011n Euskal Osasun Sistemari jardunean izan diren ikerketa-proiektuen kanpo-finantzaketaren jatorria

Hala ere, proiektu berrien (2011n hasitakoak) kanpo-finantzaketako iturriak soilik hartzen baditugu kontuan, ikusten dugu egoera erabat aldatzen dela (IV. taula): Administrazio Zentralaren eta Euskal Administrazioaren eginkizunak erabat aldatzen dira, eta azken administrazio hori bihurtzen da ikerketa medikoaren kanpo-finantzaketako iturri nagusi. Era berean, ikusten da gure osasun-sistemako ikerketa zientifikoaren nazioartekotze-maila igotzen ari dela.

Finantzaketa-eredua	Kop.	Kop. %	€	€ %
Estatuko Administrazio Orokorra	34	18	2.362.632	28
Euskal administrazio publikoak	143	76	4.447.255	54
Erakunde pribatuak	6	3	189.604	2
Nazioartekoak	6	3	1.311.964	16
Orokorrean, guztira	184	100	8.311.455	100

IV. Taula - Euskal Osasun Sistemako ikerketa-proiektu BERRIEN (2011n hasitakoak) kanpo-finantzaketaren jatorria

EUSKAL OSASUN PUBLIKOAN IKERKETAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEAK

Euskal Osasun Publikoan 2.325 pertsonak egiten dute lan ikerketa zientifikoan. Horietatik:

- 198 pertsona BIOEFek, Biodonostia Elkarteak edo Kronikgune Elkarteak kontratatatu dituzte edo beka eman dizkiete. Kontratu edo beka horiek ikerketarako diru-laguntza finalisten kargura dira, eta, beraz, pertsona horiek arduraldi osoa ikerketan dute.

• 2.063 pertsona Osakidetzak kontratatu ditu (estatutupeko langileak, bitartekoak eta behin-behinekoak dira). Haietatik 61ek arduraldi osoa dute ikerketan, eta 2.002k, berriz, ikerketarekin bateragarri egiten dute jardura kliniko-asistentziala. Kopuru horretatik ondoriozta dezakegu herenak baino pixka bat gehiagok (gutxi gorabehera Osakidetzako fakultatiboen % 36k) ikerketa arautuan (hau da, kanpo-finantzaketa duten ikerketa-proiektuetan) arduraldi partziala edo osoa dutela.

• 64 pertsona Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak kontratatu ditu (funtzionarioak, bitartekoak eta behin-behinekoak dira), guztiak ikerketan arduraldi partzialarekin.

Euskal Osasun Publikoan ikerketan lan egiten duten 2.325 pertsonetatik, 248 (% 10,7) "ikertzaile nagusiak (IN)" dira, hots, kanpo-finantzaketa lortzen duten ikerketa-proiektuetako buruak. Haietatik % 49 emakumezkoak dira.

GAI-ARLOAK ETA IKERKETA-ILDOAK

Euskal osasun-arloko ikerketako gai-arlo nagusiak V. taulan jaso dira. Diziplina arteko proiektuen multzo handia (gai-arlo guztien % 24) kenduta, ikerketa-proiektu gehien dituzten gai-arloak Neurologia (% 13), Onkologia (% 10) eta Psikiatria (% 7) dira. Kanpo-finantzaketa lortzeko duten gaitasunari begiratzen badiogu, hurrengo tokian Arnas aparatuari dagokion gai-arloa dago

Proiektuen gai-arloak	Kop.	Kop. %	€	€ %
Kardiobaskularra	29	4,08	1.137.393	2,85
Kirurgia	4	0,56	92.942	0,23
Dermatologia	3	0,42	257.777	0,65
Digestio-aparatua eta gibealeko gaixotasunak	18	2,54	980.498	2,45
Endokrinologia eta diabetesa	21	2,96	1.274.364	3,19
Ginekologia eta obstetrizia	15	2,11	604.733	1,51
Hematologia	15	2,11	296.436	0,74
Infekzio-gaixotasunak	2	0,28	4.505	0,01
<i>Diziplina artekoak</i>	<i>173</i>	<i>24,37</i>	<i>14.925.147</i>	<i>37,36</i>
Metabolismoa eta elikadura	10	1,41	267.060	0,67
Mikrobiologia eta infekzio-gaixotasunak	40	5,63	1.039.826	2,60
Nefrologia-Urologia	11	1,55	249.777	0,63
Neurologia, Neurokirurgia eta Neurofisiologia	95	13,38	3.686.590	9,23
Ez da behar	3	0,42	2.300.000	5,76
Oftalmologia	8	1,13	264.799	0,66
Onkologia	74	10,42	2.989.322	7,48
Beste gaixotasun kroniko nahiz hanturazko batzuk	30	4,23	570.117	1,43
Pediatría	2	0,28	9.600	0,02
Psikiatria	50	7,04	1.921.609	4,81
Arnas aparatua	34	4,79	1.938.594	4,85
Erreumatologia	3	0,42	26.000	0,07
Traumatologia eta kirurgia ortopedikoa	10	1,41	494.309	1,24
Giza baliabideen eta azpiegituren eskaerak	60	8,45	4.617.249	11,56
Guztira	710	100	39.948.647	100

V. Taula 201 | In Euskal Osasun Publikoan jardunean izan diren ikerketa zientifikoko proiektuen gai-arloak

Gai-arlo horien barneko ikerketa-ildoei dagokienez, kanpo-finantzaketa eskuratzeko gaitasun handiena izan duten 20 ildoak VI. taulan deskribatzen dira. Taula horretan nabarmen geratzen da gure osasun-sisteman egiten den ikerketa batez ere aplikatua eta klinikoa dela.

Ikerketako lehengo 20 ildoak (proiektuak)	Kop.	Kop. %	€	€ %
Teknologia eta aplikazio berriak garatzea	39	5,49	2.512.839	6,29
Osasun-zerbitzu eta -teknologietako ikerketa	37	5,21	2.468.241	6,18
Biobankuak	9	1,27	1.972.765	4,94
Amaren osasuna: haurdunaldia, erditzea, erdiondoa eta edoskitzea	17	2,39	1.433.745	3,59
Neonatologia	11	1,55	1.401.927	3,51
Diabetes mellitusa	15	2,11	1.003.051	2,51
Muskulu-distrofiak	9	1,27	964.996	2,42
Teknologia berrien ebaluazioa	16	2,25	801.206	2,01
Psikosia	12	1,69	729.176	1,83
Osasuna eta ingurumena	11	1,55	726.341	1,82
Osasunaren sustapena	11	1,55	704.823	1,76
Farmakologia	3	0,42	685.214	1,72
Minusbaliotasuna	9	1,27	631.603	1,58
Esklerosi anizkoitza	24	3,38	607.891	1,52
Bihotz-gutxiegitasun kongestiboa	15	2,11	544.794	1,36
BGBK	11	1,55	510.390	1,28
Kolon-ondesteetako minbizia	14	1,97	504.490	1,26
Loaren asaldurak	7	0,99	485.147	1,21
Gaixotasun zeliakoa	4	0,56	403.306	1,01
Hartutako kalte zerebrala	6	0,85	399.718	1,00
Guztira	710	100	39.948.647	100

VI. Taula - Finantzaketa eskuratzeko gaitasun handiena duten 20 ikerketa-ildoetako proiektuak (2011n Euskal Osasun Publikoan jardunean izan diren proiektuak)

2011n jardunean izan diren ikerketa-proiektuek batez ere terapeutikaren eta diagnostikoaren ikuspegitik heltzen diote gaixotasunen azterketari, gure inguruan ohikoa den bezala. Baina, hala ere, proiektu asko bideratzen da zerbitzuak planifikatu eta asistentzia-mailak integratzera, epidemiologiara, prebentziara eta osasunaren sustapenera, VII. taulan ikusten denez. Horrek iradokitzen du ikerketa zientifikoak gero eta gehiago babesten dituela euskal osasun-sistemako ildo estrategikoak.

Gaixotasunaren azterketa	Kop.	Kop. %	€	€ %
Tratamendua	209	29,44	9.024.063	22,59
Diagnostikoa	166	23,38	7.406.426	18,54
Plangintza, garapena eta ebaluazioa	60	8,45	3.715.018	9,30
Prebalentzia	64	9,01	2.539.221	6,36
Arreta-mailen integrazioa - Zainketen jarraipena	28	3,94	1.503.357	3,76
Prebentzioa	27	3,80	1.153.299	2,89
Osasunaren sustapena	19	2,68	953.113	2,39
Prestakuntza	12	1,69	387.985	0,97
Beste batzuk	59	8,31	5.597.854	14,01
Ez da behar	6	0,85	3.051.062	7,64
Giza baliabideen eta azpiegituren eskaerak	60	8,45	4.617.249	11,56
Guztira	710	100	39.948.647	100

VII. Taula - Gaixotasunaren azterketa-tipologiak 2011n euskal osasun publikoan jardunean izan diren ikerketa-proiektuetan

OSASUN-SISTEMAK IKERKETAN EGINDAKO INBERTSIOA, GUZTIRA

Ikerketa zientifikoaren iturria kanpo-finantzaketa (deialdiak, dohaintzak, ikerketa-zerbitzuen fakturazioak, patenteen salmenta edo lizentzia, etab.) eta ikerketarako osasun-sistemak berak egiten duen barne-inbertsioa dira. Biek batera osatzen dute osasun-sistemak ikerketan egiten duen inbertsio guztia.

Alderdi hori aztertzeko, ez dira barnean sartzen jarduneko proiektuak, euskal osasun-sistema publikoko zentroetan egindako ikerketari dagozkion urteko gastuak baizik, edozein dela ere gastua jasan duen erakundea (funtsak kudeatu, ikertzaileak kontratatu, gastuak ordaindu eta abar egin duena), eta edozein dela ere gastua finantzatu duen erakundea. Horiek dira Eustaten irizpideak, eta orain azalduko dena 2011ko txostenaren laburpen txiki bat da. BIOEFek urtero bidaltzen du txosten hori, 2009az geroztik, osasun-sistema guztiko datu-bilketa zentralizatu ondoren. Hala, irizpideen nahiz informazioa eskuratzeko eta interpretatzeko sistemen arteko berdintasuna bermatzen da.

Kontzeptu hauek sartzen dira:

1. Langileek I+G arloari eskaintzen dioten denborari dagozkion gastuak.
 - a. Langileen gastuak (langile horiek estatutupekoak, funtzionarioak, bitartekoak, behin-behinekoak edo ikerketa-proiektuen kargura daudenak dira).
 - b. Zerbitzuak eta azpiegitura komunak erabiltzeari dagozkion zeharkako gastuak.
2. I+G arloan egindako zuzeneko gastuak:
 - a. BIOEF, Biodonostia Elkartea edo Kronikune Elkarteen bidez kudeatutakoak.
 - b. Edo zerbitzu-erakunderen baten bidez kudeatutakoak, programa-kontratuaren bidez.

Kopuru osoek agerian uzten dute 2011n 48,5 milioi euroko inbertsioa egin dela: 2009ari dagokionez, % 20 hazi da inbertsioa.

Ikerketako gastuak egin dituzten zentroak eta oinarrizko kontzeptuak VIII eta VIII b tauletan jaso dira. Igoerarik handiena Lehen mailako arretan izan da: arlo horretan, 2009ko inbertsioa baino 2,6 aldiz handiagoa da 2011koa. Atalik garrantzitsuena langileen kostuei dagokiena da (ikerketarako lortutako funtsen kontura, plantillako ikertzaileek eta BIOEF, Biodonostia edo Kronikgunek kontratatutako langileek ikerketan emandako denbora). Langileen kostuei dagokien kopurua I+G arloko eginkizunetan lan egingo luketen 590 pertsonen kostuen zenbatespenari dagokio (lanaldi osoa oinarri hartuta).

	Euroak (milaka)		
	2011	2010	2009
Lehen mailako arretakoak	2.513	1.785	982
BIOEF	3.330	3.179	2.533
Osasun Saila	3.326	3.660	3.785
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	12.489	10.859	9.949
Donostia Unibertsitate Ospitalea	10.501	12.213	10.617
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	3.875	3.944	2.897
Galdakao-Usansolo Ospitalea	3.135	2.764	2.591
Txagorritxu Ospitalea	3.361	3.162	2.898
Santiago Ospitalea	2.296	2.332	1.763
Kronikgune	764		
Beste zerbitzu-erakunde batzuk	2.907	2.325	2.502
Guztira	48.497	46.223	40.517

VIII a Taula - Euskal Osasun Sistemak ikerketan egindako urteko inbertsioa, gastua gauzatu duen zentroaren arabera

	Euroak (milaka)		
	2011	2010	2009
Langileen kostuak	25.887	23.523	20.546
Gastu orokorrak	11.162	8.996	8.213
Zuzeneko gastuak	9.557	8.368	5.948
Ekipamenduetan egindako inbertsioa	1.891	3.335	489
Biodonostia erakinean egindako inbertsioa	0	2.001	5.321
Guztira	48.497	46.223	40.517

VIII b Taula - Kostuaren atala

Urteko diru-sarreraren laburpena IX. taulan jaso da. % 77 Osakidetza Osasun eta Kontsumo Sailak eman du. Gainerako % 23a beste finantza-iturri batzuetatik etorri da, batez ere Estatuko Administrazio Orokorretik (EAO). Sistemaren barne-inbertsiokoak diren 1.000 euroko, 337 euro dira beste finantza-iturri batzuetatik lortu direnak.

	Euroak (milaka)		
	2011	2010	2009
Osakidetzak emandakoa	31.771	28.713	21.821
- Langileen kostuak	17.383	16.278	13.940
- Beste gastu batzuk	14.388	12.435	7.881
Osasun Sailak emandakoa	6.021	5.376	4.648
- Langileen kostuak	962	1.542	1.362
- Beste gastu batzuk	750	777	861
- Proiektuen eta hitzarmenen deialdi bereziak (2011n eta 2010ean egindako gastuak)	1.787	1.217	725
- BIOEFen funtzionamendu-gastuak	1.786	1.840	1.700
- Kronikguneren funtzionamendu-gastuak	736		
Lortutako funtsak (lehiaketa bidezkoak eta bestelakoak)	10.705	12.134	14.048
- EAO*	7.374	8.008	8.734
- EJKo Industria eta Hezkuntza Sailak	299	217	455
- Tokiko administrazioak	816	1.146	1.688
- EB eta nazioarteko erakundeak	324	198	384
- Enpresa pribatuak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	1.892	2.565	2.787
Guztira	48.497	46.223	40.517

IX.Taula - Euskal Osasun Publikoan egindako ikerketa finantzatzeko urteko diru-sarreraren jatorria.

Osakidetzako Osasun eta Kontsumo Sailak I+G arloko gastuetarako emandako kopurua, beraz, 37.792 mila euro da. Kopuru hori Osasun Sailak 2011rako duen 3.412.853 mila euroko aurrekontu osoaren % 1,10 da (2010ean, % 0,96 ; 2009an, % 0,77) (iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak) .

I+Gn egindako gastuaren ehunekoa / BPG erlazioaren beste aipamen batzuk (iturria: Euskal Estatistika Erakundea):

- Euskadin: 2010ean % 2,08 ; 2009an % 1,98 ; 2008an % 1,85
- Espainian, guztira: 2009an % 1,38 ; 2008an % 1,35
- EB 27n: 2009an % 2,10 ; 2008an % 1,90

PATENTEAK ETA TEKNOLOGIAREN TRANSFERENTZIA

BIOEF erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak 2008an sinatu zuten akordioaren arabera, Administrazio Publikoak BIOEFen esku uzten du Osakidetzako ikerketa-jardueratik datozen jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak kudeatzeko ardura.

Erakundean sortutako asmaketak detektatzeko, BIOEFek sentsibilizazio-jardunaldiak eta -tailerrak egiten ditu urtero osasun-zentroetan, eta sistematikoki berrikusten ditu gutxienez bi urtez indarrean dauden ikerketa-proiektu guztiak, babestekoak liratekeen emaitzak dituztenak aukeratzeko. 2011n 547 proiektu berrikusi ziren (2009an jardunean zeudenak). Haietatik 30 proiektu aukeratu ziren, eta ikertzaile nagusiekin zenbait bilerak egin ziren, gaiaren egoera aztertzeko. X. taulan jaso diren 8 asmaketa berriak identifikatu ziren.

Zentroa	Asmaketaren izenburua	Egoera
Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea	Argininen deribatu metilatuak kuantifikatzea	Patentea eskatuta dago
	Diagnostikorako tresna berria giltzurrun-onkologian	Patentagarritasun-txostena egiten
	Parkinsonen gaixotasuna diagnostikatzeko markatzailea	Aztertzen
Biodonostia	Solation Enrichment and Expansion of neural precursor cells from human skin	Patentea ez eskatzea erabaki da
	Loaren detektagailua	Patentea ez eskatzea erabaki da
Gorliz Ospitalea	Ur gelifikatu zapoizatua	Aztertzen
Araba Unib. Ospitalea (Santiago)	Terapia psikologikoaren eskuliburua	Jabetza intelektualean erregistratzeko eskaera egin da
Araba Unib. Ospitalea (Txagorritxu)	Disavoz	En estudio

X. Taula - Euskal Osasun Arloko langileen asmaketa berriak, 2011 In BIOEFek bideratuak

2011n 39 hitzarmen sinatu ziren, Osakidetza eta Osakidetza langileen izenean, balizko kanpoko bazkide zientifiko-teknologikoekin. XI. taulan jaso da akordio horien tipologia (jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak babesteari lotutako akordioak ziren), eta BIOEFeko biosanitarioen zorroko patenteen eta egile-eskubideen mantentzea eta zabalkuntza deskribatzen da.

Zk.	Izenburua	Zentroa	Izenburua	Babesa	Titular/rak	Transferentzia	Data
1	Methods and Products for identifying Strains of Bacteria	Biodonostia	Microbiologia	PCT patentea eskatuta dago, AEBetara eta Europara zabaltzeko	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Proteomika.	Ustiatuta-lizentziako akordioa	07/09/2009
						Zabaltze akordioa	02/03/2011
2	Triajerako txalekoa	Emergentziak	Emergentziak	Erabilgarritasun-eredua emana dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Kitxo S.L.	Ustiatuta-lizentziako akordioa	28/06/2010
3	Triajearen buruzko multimedia-ikastaroa: triaje-trebatzaileentzako kalteak sortzeko gailua	Emergentziak	Emergentziak	Jabetza intelektuala babestuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Arpexa multimedia S.L.	Baterako titulartasuneko eta ustiatuta-lizentziako akordioa	17/06/2010
4	Ahoz gora etzanda lo egitea sahiesteko gailua	Araba Unib. Ospitalea (Txagorritxu)	Loaldiko arnas patologien unitatea	PCT patentea eskatuta dago AEB, Europa, Australia, Kanada Brasil, Txina, India, Japonia, Mexiko eta Errusiara zabaltzeko	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Sibel S.A. D. Daniel Oreja	Baterako titulartasuneko eta ustiatuta-lizentziako akordioa	05/05/2010
5	Estazio Klinikoren softwarea	Osakidetza Informatikako Zuzendariordea	Osakidetza Informatikako Zuzendariordea	Jabetza intelektuala erregistratuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Zabaltze-akordioa	07/06/2010
6	Aldakako eta belauneko protesien kirurgia paziente bakoitzari egokitzeko algoritmoa	Galdakao-Usansolo Osp. / Basurtuko Unib. Ospitalea	Ikerketa-unitateak	Jabetza intelektuala babestuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Konfidentzialtasuneko eta erabiltzeko baimenari buruzko akordioa	20/10/2010
7	Aginte-koadro ekonomiko-sanitarioaren softwarea	Galdakao-Usansolo Unib. Osp.	Gerentzia	Jabetza intelektuala babestuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Zabaltze-akordioa	26/12/2011
8	Ospitaleratuta dauden pazienteen gogobetetze-inkesta	Galdakao Usansolo Ospit. Basurtuko U. O. Gurutzetako U. O. Arabako Unib. Osp. (Txagorritxu)	Ikerketa-Unitateak	Jabetza intelektuala	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Lizentziarako akordioa sinatzeko bidean	Bidean
9	Agindu Bizitza Osasungarria softwarea	Lehen Mailako Arretako Ikerketa Unitatea. Bizkaia	Bizkaiko I. mailako arretako ikerketa-unitateak	Jabetza intelektuala	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Zabaltzeko akordioa sinatzeko bidean	Bidean
10	Methods for the diagnosis of multiple sclerosis based on its microRNA expression profiling	Biodonostia	Neurologiako unitate esperimentalak	PCT patentea eskatuta dago (2012ko urtarrian AEBetara eta Europara zabaltzeko)	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra UPV/EHU	Jarduneko lizentziatariorak bilatzen	
11	ANESLOC; arnasbideetan anestesikoak emateko gailua	Basurtu Unibertsitate osp.	Anestesia	Espainiako Patente Nazionala eskatuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Jarduneko lizentziatariorak bilatzen	

Zk.	Izenburua	Zentroa	Izenburua	Babesa	Titular/rak	Transferentzia	Data
12	Arginina eta haren deribatu metilatuko zehazteko metodoa	Gurutzeta Unib. Osp.	Metabolismoaren Unitatea	Espainiako Patente Nazionala eskatuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Jarduneko lizentziarioak bilatzen	
13	Kolon-ondesteetako minbizia diagnostikatzeko eta estadia ezartzeko metodoak eta kit-ak	Gurutzeta Unib. Osp.	Onkologia	PCT patentea eskatuta dago, AEBetara eta Europara zabaltzeko	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Gaiker fundazioa. UPV/EHU	Lizentziarioak bilatzeko estrategia planifikatzen gainerako bazkideekin	
14	Erresonantzia magnetiko bidezko irudiak neurtuz gibleko burdina zenbatesteko matematika-eredu bat kalibratzeko metodoa eta sistema	Osatek - Donostia Unib. Ospitalea	Osatek	Espainiako Patente Nazionala eskatuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Lizentziarioak bilatu dira, baina ez dira aurkitu	
15	Iktusa duten pazienteak eta haien zaintzaileak zaintzeko gida (material didaktikoa)	Araba Unib. Osp. (Santiago)	Kardiologia-zerbitzua	Jabetza intelektuala erregistratuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Lizentziarioak bilatzeurreko fasean	
16	PROMIC prestakuntza: bihotz-gutxiegitasuna, kardiopatia baino gehiago (material didaktikoa)	Lehen M. Arreta Barrualdeko Esk.	Barrualdeko Esk. lehen mail. arreta	Jabetza intelektuala erregistratuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Lizentziarioak bilatzeurreko fasean	
17	Bihotz-gutxiegitasuna: paziente-pazientearentzako eta zaintzailearentzako gida (material didaktikoa)	Araba Unib. Osp. (Santiago)	Kardiologia-zerbitzua	Jabetza intelektuala erregistratuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Lizentziarioak bilatzeurreko fasean	
18	Terapia psikologiko integraleko eskuliburua lehenengo agerraldi psikotikoetarako (material didaktikoa)	Araba Unib. Osp. (Santiago)	Osasun mentaleko ikerketa-unitatea	Jabetza intelektualean erregistratzeko eskaera egin da	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra CIBERSAM	Lizentziarioak bilatzeurreko fasean	
19	Ikerketa-proiektuen kudeaketa ekonomikoa-administratiboa kudeatzeko eskuliburua	BIOEF	O+Iker	Jabetza intelektuala erregistratuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	BIOEFen webgunean salgai dago	
20	Paziente Kronikoaren Arretarako III. Kongresu Nazionala. Memoria	BIOEF	O+Berri	Jabetza intelektuala erregistratuta dago	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Ez da lizentziatariorik bilatu	
21	Hiperamoniemia diagnostikatzeko eta tratatzeko gida informatizatua	Gurutzeta Unib. Osp.	Metabolismoaren Unitatea	Jabetza intelektualean erregistratzeko eskaera egin da	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. EHU	Erregistratzeko bidean dago Lizentziarioak bilatzen hasi gabe	
22	Haurren asma diagnostikatzeko eta hasierako tratamendurako gida	Basurto Unib. Osp.	Pediatría	Jabetza intelektualean erregistratzeko eskaera egin da	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. EHU	Erregistratzeko bidean dago Lizentziarioak bilatzen hasi gabe	
23	Haurren asma tratatzeko eta hurrengo kontrolak egiteko gida informatizatua	Basurto Unib. Osp.	Pediatría	Jabetza intelektualean erregistratzeko eskaera egin da	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. EHU	Erregistratzeko bidean dago Lizentziarioak bilatzen hasi gabe	
24	Diagnostikorako tresna giltzurrun-onkologian	Gurutzeta Unib. Osp.	Anatomia patologikoa	Patentagarritasun-txostena egiten	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra. EHU	Erregistratzeko bidean dago Lizentziarioak bilatzen hasi gabe	


XI. Taula - 201 In BIOEFen biosanitarioen zorroa osatzen duten patenteak eta egile-eskubideak.

IKERKETARAKO LAGIN BIOLOGIKOAK KUDEATZEA

O+Ehun Ikerketarako Euskal Biobankua da prozesu honen arduradun. Erakunde hori BIOEFen barnean dago (EHAA, 2003ko otsailaren 21eko Agindua), oinarritzko ikerketa klinikoari laguntzeko zeharkako tresna da, eta lagin biologikoak eta haiei dagozkien datu klinikoak zentro kliniko asistentzialetatik osasun-erloto, irakaskuntza-erloto nahiz teknologia- edo enpresa-erloto ikerketa-unitate eta -zentroetara helarazteaz arduratzen da.

Hauek dira Biobankuaren helburuak: 1) Indarrean dauden legeak betez ikerketarako lagin biologikoak behar bezala eskuratzen, gordetzen eta ematen direla bermatzea osasun-sistemari; 2) Laginek eta diagnostikoen hornitzaile klinikoek laguntza ematea; 3) Laginek hornitzaile klinikoek eta osasun-sistemaren barneko nahiz kanpoko gainerako ikertzaileen arteko lankidetzaren erraztea, tokiko, estatuko edo nazioarteko komunitate zientifikoaren eskura jarritz material biologikoa.

Biobankua sareko egitura bat da, eta Osakidetza zentro handietan dauden zenbait puntuk osatzen dute. Puntu horietako bakoitzak lekuan bertan eskuratzen, prozesatzen eta gordetzen ditu laginak, baina guztiek baliabideak eta ekipamendua partekatzen dituzte; kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa BIOEFek koordinatzen du plataforma informatiko baten bidez, eta leihatila bakarra dago munduko edozein lekutako ikertzaileek laginak eta zerbitzuak eska ditzaten.



Euskal Administrazio Publikoak BIOEF sortu zuenean agindu zion eginkizunari esker funtzionatzen du Biobankuak. Hala dago jasota haren estatutuetan, ikerketarako lagin biologiko guztiak kudeatzeko Osakidetzarekin eginiko hitzarmenetan, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako akreditazioan, ISCIII-ko (Carlos III.a Osasun Institutuko) Biobankuen RETICen duen parte-hartzean eta BIPOOL Europako Biobankuen Sarean duen lidergoan.

Odoleko DNAREN laginak, tumoreen biopsiak, garunak eta beste batzuk kudeatzen ditu. 2011n izan duen jardueraren honela laburtzen da:


- 4.032 lagin biologiko **eman dizkie** 23 zentrori. Zentro horiek I+G arloko 52 proiektu aurkeztu dituzte Euskal Osasun Publikoarekin lankidetzan.
- 305 patologiararen 68.500 lagin biologiko **kudeatu ditu**.
- Biobankuan 14 lagin-bilduma **sartu ditu** (jaioberrien baheketa sartu duen lehenengo autonomia-erkidegoa izan da).
- Laginak jasotzeko, bazkideak bilatzeko, aholkularitzarako eta abarrerako **zerbitzuak** eman dizkie Osakidetzako 113 klinikori.
- Biobankuko instalazioetan egiteko **akordioak**:
 - Laginak kudeatzeko zerbitzuari buruzko akordioa CSIC eta Matia Gerontologia Institutua Fundazioarekin (INGEMA): Espainian Zahartzeari buruzko Luzetarako Ikerketa (EZLI), CITA Alzheimer, Espainiako Loaren Elkartea, Pneumologiako Espainiako Elkartea.
 - Prestakuntza-arloko lankidetzak-akordioa LHko institutuekin: Tartanga (Erandio) eta Río Ebro (Burgos).
- Neuroendekapenezko gaixotasunetan, **garunak dohaintzan emateko programa** ezarri da
- Biobankuan beste ospitale batzuk **sartu dira**: San Eloy Ospitalea, Zumarragako Ospitalea, Deba Garaiko Ospitalea
- Biobankuko bi puntuk **ISO9001** ziurtagiria lortu dute: Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak eta Galdakao-Usansolo Ospitaleak
- **Komunikabideetan** agertu da (47 aldiz agertu da telebistan, prentsan, irratan eta abarretan), eta lehenengo aldiz parte hartu du euskal osasun-sistemak Zientziaren Astearen atean irekitzeko egunetan.
- ISCIII-ko Biobankuen Sare Nazionaleko batzorde betearazlearen **parte hartu** du, eta ESBB Europako Biobankuen Sareko partaidea ere izan da.
- **Lider** izan da biobanking-gaietan (biobanku baten prozesuak hobetzen): BIOPOOL proiektua, Euskal Osasun Sistemak gidatzen duen 7EPko Europako lehenengo proiektua. Proiektua telediagnostikorako, irakaskuntzarako eta ikerketarako softwarea garatzen ari da.

Biobankuak laginak prozesatzeko zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- DNA, RNA, seruma eta plasma erauztea
- Ehunak prozesatzea
- Kalitatearen kanpo-kontrola laborategientzat eta beste biobanku batzuentzat

- Linfozitoak betikotzea
- Tissue microarrays garatzea
- Prestakin histologikoak digitalizatzea
- Kultura primarioak ezartzea
- Etika- eta lege-arloko aholkularitza

Euskal Biobankuak ezin du egin eta ez du egin behar ikerketa biomedikorik zaintzen dituen lagin biologikoekin, baina bai biobanking-eko prozedurekin. Mota horretako I+G jarduera da haren finantza-iturri nagusienetako bat. I. irudian jaso dira 201 In jardunean izan diren Biobankuaren proiektuak.



I. irudia - 201 In jardunean izan diren I+G+B arloko proiektuak O+Ehun Ikerketarako Euskal Biobankuan

IKERKETA ZIENTIFIKOAREN EGITURAZKO GARAPENA OSAKIDETZAN

201 In lortutako egiturazko garapena honetan datza:

1. Ikerketa arautzen duen sistema Euskal Osasun Sistemari
2. Gure osasun-sistemari dauden ikerketa-unitateak eta ikerketa-zentroak
3. Euskal Osasun Sistemari ikerketari laguntzeko zerbitzu espezializatuak

1. Ikerketa arautzen duen sistema Euskal Osasun Sisteman

Sistemako ikerketaren estrategia Osasun eta Kontsumo Sailak planifikatzen du, Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako Sailburuordetzaren bidez. Erakunde horren barruan, osasun-arloko I+G+B-ren Kontseilu Estrategikoa sortzea aztertzen ari dira 2011tik. Kontseilu horren buru sailburuordea izango litzateke, zuzenean Osasuneko sailburuaren esanetara egongo litzateke, eta, aldi berean, inguruko eragileen (erakundeetako eragileen eta eragile zientifiko-teknologikoen edo enpresa-arlokoen) aholkularitza izango luke.


Ikerketa-zentro eta -unitateei helburuak helarazteko eta jarduera-planak haietara bideratzeko, sistemak O+Iker erabiltzen du osasun-sareko I+G+B arloari laguntza emateko plataforma gisa. Plataforma horren egitekoa da, gainera, zentroen arteko koordinazioa lantzea, prozesuak zehaztea, ikerketari dagozkion kudeaketa- eta administrazio-prozedurak eta ikerketarako giza baliabideen politikak homogeneizatzea eta abar. O+Iker da Osakidetza Erakunde Zentralarekin hitz egiteko ordezkaria, erakunde horrek eta izaera juridiko propioa duten haren ikerketa-zentroek partekatzen dituzten prozedurak eta baliabideak bateratzeko. O+Iker erakundeak, gainera, espezializazio oso handiko zerbitzuak eskaintzen ditu (biobankua, patenteak, saio klinikoen kudeaketa, etab.), osasun-sare guztiko ikerketari laguntzeko.

Euskal Osasun Sistemako ikerketa-taldeak, -unitateak eta -institutuak egindako jardueren erantzule dira dagozkien kide anitzeko zuzendaritza-organoen aurrean (izaera juridiko propioa badute), edo dagozkien ikerketa-batzordeen aurrean (izaera juridiko propiorik ez badute). Batzorde horietan zentro bakoitzeko kudeatzaileak edo zuzendari medikoak parte hartzen du, ikertzaileekin batera. Kide anitzeko zuzendaritza-organoei hauek dira parte-hartzaile nagusiak: Osakidetza (erakundeko zuzendari nagusia eta institutuaren egoitza dagoen ospitaleko Zuzendaritzako kideak), BIOEFeko Patronatua (kontseilaria, kontseilariordeak, etab.) eta —kasuaren arabera— O+Iker edo O+Berri institutuko Zuzendaritza.

Zentro guztietako I+G arloko emaitza zientifikoak, ekonomikoak eta egiturazko garapenari buruzkoak ere O+Iker erakundeak erregistratzen ditu, plataforma informatiko bateratuari eta koordinazio-lanari esker. Informazio hori Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzarako Sailburuordetzari bidaltzen zaio, Osasun eta Kontsumo Sailak egindako I+G+B arloko plangintza estrategikoaren eta politiken feedbacka egin dezan.

2. Gure osasun-sisteman dauden ikerketa-unitate eta -zentroak


Gaur egun, osasun-arloko ikerketarako bi institutu ditu sistemak (Biodonostia eta Biogurutzeta), eta osasun-zerbitzuei eta kronikotasunari buruzko ikerketarako zentro bat (sarean), Kronikgune. Gainera, beste zentro batzuetako ikerketarekin lotutako hainbat unitate, komite eta batzorde “institutu” ereduaren arabera ari dira antolatzen; beraz, pentsatzekoa da bost urteren buruan (gutxi gorabehera) gaitasun zientifiko handia lortuko dutela, eta Bioaraba Institutua eta BioBasurtoGaldakao Institutua eratuko dituztela, hurrenez hurren. Beste zerbitzu-erakunde batzuek beren lehenengo ikerketa-unitate eta -batzordeak sortu dituzte 2011n —adibidez, Bizkaiko Osasun Mentalak, Erakunde Zentraleko Erizaintzako Aholkularitzak eta Gipuzkoako Lehen Mailako Arretak—, edo, bestela, lehendik zituztenak handitu dituzte —esate baterako, Bizkaiko eta Arabako Lehen Mailako Arretak—.



Kronikune Kronikotasunaren Ikerketarako Bikaintasun Zentroa 2011n sortu du Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak, BIOEFen bidez. Zentro horren eginkizuna da kronikotasunaren aurrean osasun-sistemek eta sistema soziosanitarioek eman beharreko irtenbide jasangarri aztertzea. Sareko zentroa da, eta Euskal Osasun Publiko osoak parte hartzen du han, kronikotasunari arreta emateko osasun-zerbitzuen arloan diharduten ikerketa-taldeen bitartez, baita ikerketa-talde horiek aldi berean tokiko institutuetan edo estatuko nahiz Europako sareetan parte hartzen duten kasuan ere. Bere ikerketa-taldeak identifikatzeko ad hoc deialdia egin du. Gainera, zentroak nazioarteko ikertzaile gutxi batzuk izango ditu, eta ikertzaile horiek Euskadin bertan aztertuko dituzte kronikotasunaren ondorioak eta erronka hori aukera bihurtzeko izan litezkeen ereduak. Zentroak zuzendaritza- eta kudeaketa-talde txikia du, eta BIOEFen esku uzten du bere ikerketa-proiektuen kudeaketa ekonomikoaren eta administratiboaren zatirik handiena. Espezializazio-arlo hauek ditu: kronikotasunaren ondorioak osasunean, gizartean eta ekonomian; paziente kronikoak identifikatzeko ereduak, bereziki konplexuenen kasuan; modu pertsonalizatuan esku hartzeko sistema diseinatzea eta ezartzea (pazientean oinarrituta); pazientearen arreta eta zaintzarako sistema integratuak; eta alor honetako osasun-arreta elektronikoaren eta teknologien erabilera. 2011n ikerketa-proiektuentzako deialdi berezia argitaratu zuen; deialdi horren bidez, 17 ikerketa-proiektu aukeratu eta finantzatu zituen, eta proiektu horiek jada gauzatzen ari dira Osakidetzan. 2012rako dituen helburuen artean hauek daude: kronikotasunaren arretarako Europako sareetan parte hartzea eta zahartzarorako osasun-zerbitzuei buruzko RETIC berri bat gidatzea (Carlos III.a Osasun Institutuan, ISCIII-n, ari da sortzen hori).

